



Bretainiako ZAD guneko kideak egon ziren Getxoko Tosu landan; bertokoek elkarrizketatu zituzten. ▶10

Jone Guenetxea Arrinda abadiñarra da Tokikom Tokiko Komunikabideen bateraguneko presidentea, tokiko hedabideon gainean berba egin du. ▶16-17



hiruka

Uribe Kostako astekaria



95. zenbakia

2017ko
maiatzaren 18tik
maiatzaren 24ra arte

Umore Azoka

Eguenetik domekara ikuskizunez, musikaz eta dantzaz beteko dira herriko kaleak eta bazterrak. ▶11



© LEIOAKO UDALA



SAKONEAN URIBE KOSTA

Bidegorria, aurrera

Ibaizabalgo itsasadarreko Bi-711 errepidean bidegorri bat egitea adostu zuten dagokien erakunde denek pasa den mendean. Joan den astean, Portuak mahai-gainean ipini zituen bidegorri hori egiteko dauden lau proiektuak, Areeta eta Bilbo bitartean. ▶22

HERRIZ HERRI BERANGO

Erdi Aroa bueltan da!

Moreaga parkea antzinako garaietako pertsonaiez beteko da hilaren 19tik 21era bitartean, Erdi Aroko Azoka antolatu dute eta. ▶8

HERRIZ HERRI GETXO

Kalimotxoari gorazarre

Museoa egingo dute Portu Zaharreko Etxetxu eraikinean, edari mitikoaren historiari errepasoa egiteko. ▶4

Euskara kaleraino ateratzeko Berbodromoa egingo dute aurtien ere, hilaren 18an, Getxon, goizez eta arrastiz. ▶4

Erandioko gazteek udan olgatzeko eskaintza zabala daukate: Udaldia, Antzerkitxiki, Muak English eta Gazte-udaldia. ▶5

Jardunaldi ekologistak egingo dituzte lehenengo aldiz Plentzian, hainbat herritarren eta Udalaren ekimenez. ▶9

Euskal Herriko Gazte Surf Zirkuituaren lehenengo proba irabazi dute Sara Urrestik eta Endika Garaik, Barinatxen. ▶18



Gaueko margolari koldarren jarraitzaileei

Euskadin ETaren amaiera dela eta aro berri bat zabaldu dela aldarrikatzen dugun honetan, bake egotzaren batean ez garela bizi entzun diot Iker Casanova EH Bilduko legebiltzarkideari gaur goizean Onda Vascan izan duen elkarrizketan. Casanovak esan duenez, Euskadin Giza Eskubideak urratzen dira oraindik eta beraz, ezin da bakeaz hitz egin. Ados nago neurri handi batean bere adierazpenekin, baita adibidetzat jarri dituen gertaeren zentzugabeke-riekin, adibidez, Altsasuko gertaera terrorismo legearekin epaitzea. Adierazgarria iruditu zait ordea, elkarrizketa berdinean, Ernaik aurreko astean egindako erasoak (tartean Algortako Batzokiari egindakoa) zelan leundu dituen; komunikabideei ekintzari emandako trataera gehiegizkoa izan dela leporatzeaz gain, erasoak erasotzat kalifikatzea ere kritikatu egin die, Ernairen ekintza ez kritikatzearekin batera. Nola esan dezake gizartearen sektore politiko bat ordezkatzeko duen hautetsi batek, gizartearen beste sektore politiko bat ordezkatzeko duen alderdi politiko baten egoitza batean margoa botatzea edota zaborra botatzea erasoak ez denik? Erasoa ez bada, zer da? Kalte materialak ez al ditu eragin? Akordio demokratiko bat kritikatzeko, politika eta elkarrizketa erabili beharrean, alderdi politiko baten egoitzan kalte materialak eragitea, ez al da demokratziaren aurkakoa eraso bat? Ez al du erasoak alderdiarekin identifikatzen garenon adierazpen askatasuna mugatu nahi? Ezker Abertzaleak oraindik bere garteriaren DNAn txertatuta dituen eslogan «belikoak» («zuek zarete erraustuko dugun hurrengo zaborra», «zuen burua gure jopuntu», «tiro al facha...») eta zenbait ekintza ere kalifikatu beharko litzuke, izan ere, horrelakoengatik ere ez gaude normaltasun egoera batean legebiltzarkide jauna. ◀

Getxo

Zeramikak protagonista

Begoñako galerien dekorazioetako elementu hori da hil honetako bisita gidatuen protagonista.

Begoñako galerietako elementu apaingarrietako bat sikonago ezagutzeko aukera dago hilabete honetan: zeramikak, beren-beregi. Bisita gidatuek aurtun estreinatu duten formatu berrian sartzen den hileko erakusketa- ren protagonistak dira zeramika horiek, eta hilaren 30era arte bisitatu ahal izango dira. Formatu berri horren helburua da galeriak berreskuratzeko eta horiei balioa emateko proiektuaren aurrerapenak azaltzea. Hala, hilabete honetan, galerien apaingarriak osatzen dituzten zeramikazko elementuen nondik norakoak deskribatuko dituzte, horiek nondik datozen, nola osatuta dauden eta zein koloretakoak diren azalduko da, baita nola fabrikatu diren ere erakutsiko dute. Horrez gainera, zeramikak analizatzeko erabili diren teknikak eta zeramika bakoitzetik ateratzen diren datuak azalduko dira erakusketa horretan.

Galerietako zeramikak nondik datozen jakiteko, EHuko ikertzaileek egindako analisi kimikoen emaitzak beste ekoizpen ezagun batzuetatik datozenakaz alderatu dira, berbarako, Sevillakoakaz eta Bartzelonakoakaz. Hala, ondorioztatu ahal izan dute Begoñako zeramikak Sevillan egindakoak direla. Zeramika horiek era-



Bisita gidatuetan parte hartzeko alde aurretik izena ematea beharrezkoa da.

kusten dute galerien jabeak erosteko ahalmen handia zuela; gainera, ez da kasualitatea zeramika horiek garai hartako leku esanguratsu batzuetan egotea, esaterako Bilboko Café Iruñan. Granadako Alhambrako motibo nazarrietan oinarritutako dekorazio estiloa daukate; gainera, galerietako lauza elementuetako asko hasieran bezala daude, goiko eta beheko erremateakaz, eta goiko eta beheko zerrenda

apaingarri edo frisoakaz. Horiek denak bisita gidatuetan ikusgai daude.

Bisiten formatu berri horregaz, EHU lantzen dabilen ikerketen berri emango da, hilez hil aldatuko diren elementu dinamiko eta dibulgaziozkoen bitartez. Hala, modu bisual eta erakargarriago batean islatu ahal izango dira lanen emaitzak. Apirilean, galerien azpiko flysch motako labarra izan zen erakusketaren gai nagusia. ◀

Behin-behineko etetea, bandalismoagatik

Galerietako bisita gidatuak bertan behera utzi behar izan zituzten joan den astean, ekintza bandaliko baten ondorioz. Kalteak EHuko ikertzaileek erakusketarako sortu zituzten azalpenezko elementuetan izan ziren. Izan ere, kutxa horien helburua da proiektuaren aurrerapenak azaltzea eta Begoñako zeramiken alderdi ezberdinak erakustea, esaterako berauen jatorria, osaera eta apaindurak. Bisita gidatuak hilaren 12an berrabiatu zituzten, normaltasun osoz. ◀

Getxo Lagunkoia baloratzeko inkestak egingo dituzte

Getxoko Udalak 60 urtetik gorako gizon-emakumeen artean 500 inkesta egingo ditu, udalerriko ingurune fisikoaren, segurtasunaren, partaidetzaren edo inklusio sozialaren inguruan duten pertzepzioa ezagutzeko. Gai horieen inguruan iritzi-taldeek agertutako ondorioakaz eta estatistikadatuakaz batera, prozesu hori da Getxo Lagunkoia programak udalerraren pertsona nagusiekiko laguntasun maila ezagutzeko martxan abiarazitako azterketaren hiru zutabeetako bat. Egin beharreko inkesta guztietatik, 250 edadetuak ibiltzen diren lekuetan egingo dira, hau da, osasun zentroetan, kultur aretoetan, kiroldegietan eta pertsona nagusientzako zentroetan, besteak



Edadetuak dauden guneeetan egingo dituzte.

beste. Udal iturriek azaldu dutenez, inkestazailak era «egokian» identifikatuta joango dira. Gainontzeko 250 galdeketa telefonoz egingo dituzte. Modu berean, gura duenak udal webgunean izango ditu galdera guztiak ikusgai. ◀

info+: www.getxo.eus

Hilaren 31ra arte izena eman daiteke Andrés Isasi Musika Eskolan

Andrés Isasi Musika Eskolak 2017-2018 ikasturterako izena emateko epea zabaldu du. Matrikula maiatzaren 31ra arte egin ahal izango da, eskolara bertara gerturatuta zein online bidez. Eskaera egiteko, udal webgunean dagoen inprimakia bete beharko da; eskolan bertan ere eskuragarri dago. Webgunean bertan zehaztuta dago Algortako eta Areetako egoitzetan zeintzuk ikasgai egiteko aukera dagoen.

Aurtengo ikasturtean 1.100 ikasle inguruk ikasi dute orkestra batean aurki daitezkeen hainbat instrumentu. Musika klasikoaz gain, jazz musika ere ikasteko aukera dago bertan. Eskolan euskararen eta gaztelaren elkarbizitza sustatu gura dute baita ere. ◀

Getxo

info+: www.getxo.eus.

Bazterkeria eragotzi guran

Gizarte Zerbitzuek herritarren % 7a artatu zuten iaz, baliabiderik ezari aurre egiteko asmoz.

Getxoko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak 3.187 familia-unitate artatu zituen 2016an; guztira, 6.096 pertsona, herritarren % 7,65a. Aurreko urteetan legez, eskatzeko arrazoi ohikoena baliabiderik eza da; ostean, norberaren autonomia-rako beharra, eta dauden baliabideen

inguruko informazioa eskatzea, hiru-garrena. Iaz, aldizkakoak ez diren 118 laguntza eman zituen Udalak, 150.226 euroan (2015ean baino % 15 gehiago eta 2014an baino % 87 gehiago). Hazkunde hori etxebizitza izateko premiazko neurrietarako izan da, etxean bertan bizi ahal izateko, beste laguntza batzuk izan arte. Bestalde, 733 Gizarte Larrialdi Laguntza eman ziren (2015ean baino 23 gehiago); 960.950 euro, guztira. Eskakerak egiteko arrazoi ohikoenak alokairuei eta ostatu gastuei aurre egiteko izan ziren, aurrekoetan bezala. ◀

Jardunaldi botanikoek 20 urte beteko dituzte Getxon

Udalerriko fauna ezagutu eta lurzoruak landareetan eta perretxikoe-tan duten eragina zein den jakinaraziko du egunotan Basozaleak elkarte mikologiko eta botaniko getxoztarrek.

Izan ere, urtero legez, jardunaldi botanikoak antolatuko dituzte hilaren 21etik 31ra bitartean; aurtengoa 20. edizioa izango da. Zapatuan ekingo diote landareak batzeari, hilaren 20an; hurrengo egunean ikusgai ipintzeko, Algortako Tellagorri plazan, 11:00etatik 14:00etara. Bertan, landare freskoak eta ihartuak, jangarriak, sendabelarrak, toxikoak eta zuhaitzen enborrak erakutsiko dituzte, besteak beste. Astelehenean, «Getxo: bere faunaren bilakaera XXI. mendean» berbaldia eman-gu du Xabier Buenaetxeak, Algortako Villamonte kultur etxean, 19:30etik aurrera. Egun bi beranduago, eguaztenean, lurzoru mota desberdinetako landare eta perretxiko bioadierazgarrien inguruan berba egingo du Alfred Llorente biologoak, aurreko berbaldiaren leku eta ordu berean. Azkenik, Enrique Elexpuru biologoak gure ingurune gatz-lurzoru-etako landareen nondik norakoak azalduko ditu hilaren 31n, eguaztenean, Villamonte kultur etxean, arrastiko 07:30ean. ◀

Egitaraua

Maiatzak 20, zapatua

09:00-13:00 Landareak batzeko txangoa.

Maiatzak 21, domeka

11:00-14:00 Getxoko XX. Erakusketa Botanikoa, Algortako Tellagorri plazan.

Maiatzak 22, astelehena

19:30 «Getxo: bere faunaren bilakaera XXI. mendean» berbaldia, Xabier Buenetxearen eskumenez, Villamonte kultur etxean.

Maiatzak 24, eguaztena

19:30 «Lurzoru mota desberdinetako landare eta perretxiko bioadierazgarrien berbaldia emango du Alfred Llorentek, Villamonte kultur etxean.

Maiatzak 31, eguaztena

19:30 «Gure ingurune gatz-lurzoru-etako landareak» hitzaldia eskainiko du Enrique Elexpuru, Villamonte kultur etxean.

Ikasleen artean birziklatzea bultzatuz

Birziklatzearen Munduko Egunaren inguruan, kaleko ekintzak egingo dituzte 14 urtez azpiko umeentzat.

Udalerriko zortzi ikastetxeko 10 eta 14 urte bitarteko 800 ikasle baino gehiago parte hartzen dabilta Birzikla Klubean. Ekimenaren euskarri nagusia webgune bat da, eta Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailetan eta DBHko 1. eta 2. mailetan dauden ikasleei begirakoa da. Webgunean, eskola arteko lehiaketa batean parte hartzeko aukera eskaintzen zaie ikasleei; joko eta erronkak batzen dituen lehiaketa da eta, horien bitartez, birziklatzeari eta hondakinen kudeaketari lotutako gaiak ikasiko dituzte. Getxoko ikastetxeetan birziklatzearen eta ingurumenaren alde egin ohi diren eki-

menetako bat da hori, eta Getxo 2022 Erronka proiektuaren barruan dago.

Birziklatzearen Munduko Eguna

Getxo Udalak bat egin zuen hilaren 17an izan zen Birziklatzearen Munduko Egunagaz. Hori dela eta, kale ekintzak egiten dabilta udalerrian 14 urtetik gorako neska-mutilentzat. Joan den zapatuan, egin zuten lehenengo ekimena, hilaren 13an; hurrengo hitzorduetan hilaren 20an eta 27an izango dira, zapatuetan, Getxoko Malakate parkean eta Algortako Telletxe plazan, hurrenez hurren. Egun horietan, ekintza bi antolatuko dituzte, euskaraz zein gaztelaniaz, ondoko hauek: Tribiantzara erraldoia (antzararen jolas ingurumenaren inguruko galderakaz) eta askotariko tailerrak, esaterako aurpegiak margotzekoa eta birziklatzekoa, eskulanak egiteko. ◀



Arrigunaga eta Ereaga

dira aurtien Bandera Urdina izango dituzten Bizkaiko hondartza bakarrak. ADEAC-FEE, Ingurugiroko Hezkuntzako eta Kontsumitzaileen Elkarteak ematen du aitortza hori; Getxokoa-kaz batera, EAko hareatzak ere eskatu zuen bandera; baina, ez diote eman.



Sekula Betikotik

ITXASO PAYA RUIZ
Sortzailea

Euskaldunok gurasoak dauzkagu

Euskara oso zaila da. Hori da sarri entzundako esaldia; zurrumurru zahar xamarra. Zenbat eztabaida izan diren kontu horren harira. Nik horrelakoetan generoa aipatzen dut, euskarak, berez, ez baitu sexu bereizketarik egiten; eta horrek asko erraztu dezake hizkuntza bat. «¿La mar?», «¿El mar?» ... Denok ezagutzen dugu Berango zein Martiartuko norbait, adibidez, gaztelaraz mintzatzean «la» eta «el» artikuluekin ezin asmatu ibiltzen dena. Geurean ez da horrelako arazo ezta bereizketarik ere: euskaraz berdinagoak gara. Geurean itsasoa da, «itxoso»; hau eta hura, baita ura ere. Azken batean, euskaldunok gurasoak dauzkagu. ◀

Getxo

Kalimotxoaren museoa

Edari mitikoari gorazarre egiteko behin betiko erakusketa egingo dute Portu Zaharreko Etxetxu eraikinaren arkupeetan; horiek erabilera publikoa izaten jarraituko dute.



Proiektua datorren urtean martxan ipintzea aurreikusten dute sustatzaileek.

Kalimotxoari gorazarre egiteko lekua egongo da laster Portu Zaharrean. Izan ere, Natxo Ugarte eta Iñaki de la Torre gazteek edari horren museoa egingo dute Etxetxu eraikin historikoaren arkupeetan, «egundoko lekua da hori egiteko, bertan sortu baitzen edari eza-gun hori», zehaztu dute. Dena dela, azkenengoak argi utzi gura izan du Etxetxuko aterpeak erabilera publiko-koa izaten jarraituko duela, «erakusketa behin betikoa izango da, panel informatiboak jarriko ditugu hormetan. Hala ere, noizbait behin-behineko ekimenak ere egitea aurreikusten dugu, eta baliteke, kasu horietan, arkupeak kristalezko manpara batekin itxi behar izatea, segurtasun- eta mantentze-kontuengatik». Eraikinaren goiko aldean, berriz, apartamentu bi egingo dituzte, Portu Zaharreko «izaera guztiaz» bizi gura duten guztien gozamenerako. ◀

Askotariko jarduerak antolatuko ditu Sendik egunotan

Gurasoak eta umeak batera jolaste-ko saioak martxan ipini ditu ostera ere Sendi proiektuak. Hala, Parkean Olgetan egitasmoaren hurrengo saioak hilaren 19an eta 26an izango dira, Areetako Eskoletako plazan eta Algortako San Nikolas plazan, hurrenez hurren; saio biak 17:30ean hasiko dira. Modu berean, Meatzaldeko historia eta istorioak ezagutzeko irteera egingo dute hilaren 20an, zapatuan. Goizeko 09:00etan abiatuko dira Faduratik, Gallarta, Peñas Negras, Sauko eta Zugaztieta inguruak ezagutzeko. Ordu biko mendi-ibilbidea egingo dute, eta kontaktak euskaraz izango dira, Alberto Bargos idazle eta kontalariaren esku-tik. Azaldu dutenez, lehendabizi, Sauko meatzarien herri abandonaturaino joango dira oinez, Peñas Negrasetik. Eguerdian, berriz, Zugaztieta eskulturen parkean bazkalduko dute. ◀

izen-ematea: sendi@egizu.eus / 644 277 155

Berbodromoa egingo dute eguenean

Taldeak dinamizatzaile batez osatuko dira, eta 15 minutuz berba egin beharko dute, askotariko gaiez.

Eguenean, maiatzaren 18an, Euskararen Berbodromoaren seigarren edizioa egingo dute Getxon. Horren helburua da euskaraz berbertan elkartzeko eta hizkuntza kalera ateratzea. Egizu elkarteak antolatuta, ekimenak hiru saio izango ditu, euskaraz mintzatzeko gogoia duten guztioi begirakoak, barbarako euskara ikasten

dabiltzanei, berbalagunei, euskaldun zaharrei eta berriei. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, aurten 400 lagun elkartzeko da euren helburuetako bat. Goizean saio bi izango dira: 09:00etan eta 11:00etan, Algortako San Nikolas plazan; hirugarrena, berriz, 19:00etatik aurrera izango da, Itzurbaltzeta/Romon, Aurrezki Kutxa, Gobelondo eta Kalamua kaleen artean. Gaiak hurrengo hauek izango dira: «*Runnerak*, izurrite berria gure herriko pasealeku guztietan», «Eguraldia hizpide izaten da maiz; zergatik?», eta «Getxoko aparkalekuen arazoa». ◀

Jaietan ematen den indarkeria matxista hausnarketagai

Datorren maiatzaren 23ra arte dago zabalik Bizkaiko Jabekuntza Eskolen ikasturte amaierako topaketara joateko izena emateko epea. Lehenengo aldia izango da zortzi eskolako (Basauri, Getxo, Ondarroa, Ermua, Elorrio, Abadiño, Durango eta Arratia) partaideak elkartzeko direna. Jardunaldia ekainaren 3an izango da, zapatuan, Durangon; jaietan indarkeria matxistaren inguruan hausnartuko dute. Horretarako izen-ematea Getxoko Udaleko Berdintasuneko Zerbitzura jo beharko da. Autobus bat antolatu gura dute Getxotik; irteera 09:30ean izango litzateke, Telletxe plazatik. ◀

info+: berdintasuna@getxo.eus / 944 660 136

Piztiak taldearen kontzertua Azebarrin, maiatzaren 27an

Datorren zapatuan, hilaren 27an, Piztiak musika taldeak bere azkenengo lana aurkeztuko du Algortako Azebarri kultur elkartearen (Euskal Herria kalea, 14-16). Horretarako hitzordua 21:00etan ipini dute, eta kontzertua doakoa izango da. Azaldu dutenez, urte batzuk igaro ostean, Piztiak taldekoak bueltan datoz disko berri bat eskuartearen dutela. Oraingoan, Jesus Galan gitarra-jolea bueltatu da, 15 urte eta gero. Lan berria *U* deitzen da eta 11 abesti ditu. Abestietako musika Txomin Uriberena eta Josu Aranbarriena da; hitzak, berriz, Txomin, Josu eta Kirmen Uriberenak. ◀

info+: www.azebarri.eus

JUAN MARI
Harategia · Urdaitegia

Baserriko haragia, produktu artisaia eta etxeko zerbitzua

Las Mercedes, 31. 48930 AREETA
94 464 41 25

aldai

Tapizteria
Dekorazioa
Erakusketa
Tailerrak

Basagoiti etorbidea 32
48990 Algorta
94 460 90 31

GetxoGas

GetxoGason
Euskararekin
bat!!

Getxo eta Berango artean
94 430 15 00

Iñaki Bitxitegia

Montblanc, Longines eta TagHeuer agentzia ofiziala

Villamonte plaza 3
94 430 23 45
Algorta

Telletxe 1
94 460 27 41

Erandio



Antzerkitxiki programan 5 eta 14 urte bitarteko umeak onartuko dituzte. © ERANDIOKO UDALA

Antzerkitxiki, Muak English eta Udaldiak

Erandioko gazteek udan olgetan ibiltzeko eskaintza zabala daukate aukeran: Muak English eta Antzerkitxiki programak eta Udaldia eta Gazte-udaldia ekimenak, berbarako.

Erandioko neska-mutil txikiek, 2010. eta 2013. urteen artean jaiotako umeek, daborduko aukera izan dute udaleku irekietan izena emateko; baina, badituzte alternatiba gehiago ere. Gainera, horiek baino nagusiagoak direnak beste eskaintza batzuk izango dituzte, udan ondo pasa ahal izateko.

Hala, 2005. eta 2010. urteen artean jaiotako ume erandioztarrek Udaldia ekimenean izena eman dezakete. Kultura-, kirol- eta jolas-ekintzak egingo dituzte, txanda bitan: uztailaren 4tik 14ra, eta uztailaren 17tik 28ra. Txanda bakoitzean 134 leku daude. Ordutegia 10:00etatik 14:00etara izango da; astean behin izan ezik, egun horretan 17:00etara arte luzatuko dira. Udaldirako behin-behineko izen-ematea maiatzaren 22tik 28ra egingo da, kiroldegietan edo Astrabuduko udal-bulegoan. Ekainaren 2an, lekuen zozketa egingo dute Altagako kiroldegian, goizeko 10:00etan. Hala, behin betiko inskripzioa ekainaren 5etik 9ra izango da. Nerabeen kasuan, 2002. eta 2004. urteen bitartean jaiotakoek Gazte-udaldia egitasmoaz gozatu ahal izango dute, uztailaren 4tik 27ra. Data ho-

rien bitarteko martitzen eta eguenetan egingo dituzte kirol-, jolas- eta kultura-ekintzak, 10:00etatik 17:00etara, gutxi gorabehera. 50 leku daude. Gazte-udaldiaren izen-ematea eta zozketa Udaldiaren data eta baldintza berberetan izango da.

Bestalde, 4 eta 12 urte bitarteko neska-mutilek ingelesa «modu dibertigarrian bizitzeko esperientzia» bizi dezakete udan, «musika sentitu, ezagutu eta bizitzeko aukera ematen duen metodo entretenitu baten bitartez», Art Libitum elkarteak iragarri duenez. Muak English programa hori Josu Murruta kultur etxean egingo dute, txanda bitan: ekainaren 29tik uztailaren 12ra, eta uztailaren 13tik 28ra. Ordutegia 08:30etik 14:30era izango da. Izena emateko epemuga maiatzaren 26a da; Astrabuduko udal-bulegoan edo udal-etxean. Uda ondo pasatzeko azken programa Altagako Antzerkitxiki da. Programa horren helburua da Erandioko umeak eta nerabeak «antzerkiaren diziplina ugarietara hurbilaraztea, amaieran antzezlan musikal bat eszenaratzu. Datak eta baldintzak Muak Englishen berberak dira. ◀

info+: Erandio.eus

Takolosek beste elkartasun-erronka bat antolatuko du

Zapatu honetan, maiatzaren 20an, Takolos irrati-klubak beste elkartasun-erronka bat egingo du, Astrabuduko Paco tabernaren ondoan (Atxutegi kalea, 17). Oraingo honetan, Trabudu dantzari-taldearen aurka jokatu dute putxera-dema. Indabak probatu gura dituztenek bost euroan egin ahal izango dute, txerriak eta ogia barne. Ekimen horretan aterako duten dirua Aspacek Loium duen Zabalotxe Goikoa ikastetxearentzat izango da. Bertan, garun-paralisia duten dozenaka neska-mutilek ikasten dute. ◀

info+: Facebook.com/takolos.org

Hezkuntza Arloko diru-laguntzak eska daitezke daborduko

Erandioko Udalaren Hezkuntza Sai-lean diru-laguntzak jasotzeko eskabideak datorren martitzenera arte aurkeztu ahal izango dira, hilaren 23ra arte. Erandioko Udalak zabaldu duenez, 52.000 euroko diru-partida horren helburua da finantzatzea ikastetxeek udalerrri barruan antolatzen dituzten gizarte eta hezkuntza-jarduerak edo jardura zibikoak. Eskariak aurkez ditzakete ikastetxeek, guraso-elkarteek eta hezkuntzan jarduten duten beste-lako elkarteek. Inprimakiak udal-bulegoetan eta webgunean lor daitezke. ◀

info+: Erandio.eus



Zinemaren hizkuntzagaz harreman handia dute Tartangako ikasleek. © TARTANGA LHI

Eskola-bizikidetzarako film laburra emango dute barikuan

Barikuan, hilaren 19an, eskola-bizikidetzarako jardunaldia egingo dute Tartanga Lanbide Heziketako institutuan. Goizeko 09:00etatik aurrera, zenbait berbaldi emango dituzte hainbat adituk; amaieran, gazteek *Bitartekari-istorio bat* film laburra ikusi ahal izango dute, Erandioko ikasleek egindakoa. Mikel Filgueiras Hezkuntza zinegotziak aurkeztuko ditu Hezkuntza eta Bizikidetzaren arloetako udal-programak. Ostean, Elena Ayarza Arartekoaren Haur eta Nerabeentzako Bulegoko arduradunak berbabide izango du *Bizikidetz*

eta gatazkak ikastetxeetan iazko txostena eta egin duten segimendua. Bere aldetik, Rosa Santibáñez Deustuko Unibertsitatearen Pedagogia Soziala eta Aniztasun Saileko kideak Bultzatzen proiektua azalduko du; 2004tik lantzen dabilta, Erandioko Udalagaz, Astrabudua BHigaz eta Ignacio Aldekoa ikastetxeagaz batera. Asier García gatazketan aditu eta bitartekariak eta Jorge Ayerza Erandio BHiko zuzendariak, berriz, emango dute Eskola-bizikidetz programak Erandion duen garapenaren berri. ◀

info+: Nolaeginaurregatazkei.com

txakoli
mota
gane
txakolina

Leioa-Unbe errepidea 34
(Akarlanda parkea) Golerri-Erandio
94 467 00 07 - www.txakolimotagane.com

OSABIDE Hertz-Klinika
Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27, behea eskuina. ALGORTA - 94 430 76 96

BORDATUAK
EUSKAL JANTZIAK

AINGARA

Aurrezki kutxa, 18. 48930 ERROMO-Getxo
94 403 89 53 - www.bordadosaingara.com

prentsa • aldizkariak

ITXASGANE

Getxoko kirol portua • 94 491 53 21

Leioa

Eskolaraino, laguntza barik

Umeak gurasoen laguntza barik eskolaraino joatea bultzatzen du Herrigune Leioa komunitateak martxan ipini duen *Bizibideak: Lagunekaz Eskolara* egitasmoak.



Umeak, eskolara bidean. Aste bi barru ekimenaren gaineko gogoeta egingo dute.

Maiatzaren hasieran ipini zuten martxan eskola-proiektua. Herri osoan, umei eskolarainoko bidea erakutsi zieten; 31 topagune ipini ziren. Leioako Herrigunek bultzatutako egitasmo horren helburua da neska-mutilak eskolaraino euren kabuz oinez joatea, bakarrik, gurasoen edo helduen laguntza barik.

Hala, ekimena maiatzaren 19ra artean gauzatuko dute, lehen asteko proba-denboraldia igaro da. Proiektuaren hasieran, zenbait herritako eskola publikok zein pribatuk eta Udalak alde aurretiko lana egin zuten: zenbait guraso-elkartegaz bilerak antolatu, aukeran dauden ibilbideen hainbat mapatze egin ikasgeletan, ikasleek beraiek kaletan diagnosiak egin... Horien haritik, proposatu zituzten ibilbide guztiak aztertutuzte, eta, atzenean, bideragarrienak aukeratu; horiek osatzen dute

Bizibideak Lagunekaz Eskolara proiektua. Egunotan 31 topagune daude herri osoan, eskolaraino doazen umeak lagunak bertan elkartu eta eskolaraino joateko. Horrez gainera, hainbat seinale ezarri dituzte herri osoan; eskolaraino doazen ibilbide seguruak erakusten ditu, koloreka ezberdinduta, bakoitzaren iraupenaren inguruko informazioa adierazten dute. Proba-egun hauetan, umeak lagunakaz topagunetan lotu dira egunero, eskolaraino joatearen errutina euren kabuz antolatuz. Aste bi barru, ibilbide zein topaguneei gaineko ikuspuntua, iradokizunak eta hobekuntzak azaldu ahal izango dituzte. IGEk, umeek, herritarrek, udaltzaingoak, udal-bulego teknikoak eta proiektuaren hezitzaileek diseinatu dute ekimena, eta Leioako Udalak berori ezagutzera gonbidatu ditu helduak eta herritarrak, kalera irten eta umeak batera ibilbideak egitera. ◀

Pop-rock lehiaketaren finalean joko duten taldeak dira...

Leioako XVII. Pop-Rock lehiaketa nork irabaziko duen jakiteko San Juan jaietara arte itxoin beharko bada ere, daborduko jakina da Dare to Blame talde leioaztarrak irabazi duela Leioako Udala sari berezia. Horrez gainera, finala nortzuek jokatu duen ere ezagutarazi dute: Metal modalitatean, Portugaleteko Dethlirium eta Evil Seeds talde getxoztarra izango dira finalistak. Dethliriumeko hiru koteak *Assymetrical Disorder* izeneko lehen EPa aurkeztu zuten urte hasieran, trash-corea eta black eta death estiloak konbinatuz. Evil Seeds taldea, oster, 2008tik dabil metal klasikoa lantzen. Euren azken EPa *From the*

Abyss deitzen da. Pasa den urtean finalistak izan ziren Rockein lehiaketan eta Bilbo Hiria lehiaketako finalerdietan lotu ziren aurreko edizioan. Pop-rock modalitatean, Bartzelonako Ofiura eta Zeberioako Zazkel taldeen lehia izango da. Indie-popa uztartzen duen *Part of Something* EPa aurkeztzen dabil Ofiura. Euskarazko indie abestiak jorratzen dituen taldea bizkaitarra da Zazkel; laster, disko berria kaleratuko du. Gainera, Euskarazko kantarik onenaren saria irabazi du Zeberioko taldeak, *Eri* abestiagaz.

Aurtengo edizioan 70 taldek parte hartu dute; horien arteko 38 talde Euskal Herrikoak dira, 3 Leioakoak. ◀

Rubén Lucas García: Pop-rock lehiaketako kartelaren garailea

Murtziako Rubén Lucas García izan da aurtén Leioako XVII. Pop-rock lehiaketari irudia eta koloreak jantzi dizkion garailea, *Alma de Rock* izeneko ilustrazio koloretsuagaz. Obran gitarra jotzen dabilen rockero bat ikus daiteke. Marroi eta arrosa kolorea konbinatzen dituen 3D estiloko irudia da.

Guztira, 24 lan aurkeztu dira edizio honetan, eta sariketa sistema publikoaren bidezkoa izan da. Aurtengo edizioako bozketan 254 pertsonak hartu dute parte, epaileenak kontuan izan gabe. Lehiaketara aurkeztu ziren kartel guztiak Aterpe Leioa Gaztegunean antolatu den erakusketan ikusgai egongo dira, abenduaren 7ra arte. ◀

Udaleku Irekietan izena emateko epea laster zabalduko da

Maiatzaren 22tik 26ra bitartean izena eman ahal izango da Aterpe Leioa Gaztegunean Udaleku Irekietan. Kirol eta aisialdiko jarduerak uztailaren 3tik 14ra bitartean antolatuko dituzte. Euskaraz izango dira udalekuok, eta Leioan erroldatutako 14 eta 17 urte bitarteko gazteei begirakoak dira. 40 izen-emate baino gehiago egotekotan, lekuen zozketa egingo lukete, ekainaren 1ean. Lekua baieztatzeko matrikula ordaintzea beharrezkoa da, ordainagiria ekainaren 5etik 9ra bitartean Aterpe Leioa Gaztegunean aurkeztuz. Matrikularen prezioa 40 eurokoa da Kultur Leioako Lagun gazteentzat; 65 eurokoa, gainontzekoentzat. ◀

Kalitatezko irakaskuntza euskaraz



BETIKO IKASTOLA

- 0-16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.
- Ingelesa 4 urtetik aurrera. Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, askaria, zaintza.
- Eskolaz kanpoko jarduera ugari.
- Ikastolen Elkarteko ikastola bakarra Leioan.

Artaza auzoa, 84. 48940 LEIOA
94 464 23 64/94 464 33 07
info@betikoikastola.net
www.betikoikastola.net



ikastolenelkartea



TAPU TABERNA
Santa Eugenia Kalea 13
ERROMO

GURE ETXEA
taberna

HAMBURGESA, PINTXOAK ETA GIRO EDERRA
Caja de Ahorros, 14 - Romo / T. 94 463 68 80



Egunkariak
prentsa eta aldizkariak

Algortako etorbidea, 78 ALGORTA • 94 491 27 34

Gura izanex gero, etxera eroango dizugu egunkaria!

Sopela

Nómadas en la Arena eskainiko dute Kurtzion

Panda Raid Bizkaia taldeak hamar egun eman zituen basamortuan, eta esperientzia solidario horren dokumentala proiektatuko dute egunean, Sopelako kultur etxean.

Maiatzaren 25ean, Sopelako Kurtzio kultur etxean, sei lagunek Marokoko basamortuan hiru Seat Pandetan bizitako esperientzia kontatzen duen *Nómadas en la Arena* dokumentala proiektatuko dute, gaztelaniaz eta doan. Bidaiariak Luis Miguel Eguiluz, Iker Ortega eta Carlos Pérez sopeloztarrak eta Koldo Uria algortarra dira, Alfredo Varela santurtziarra eta Unai González trapagarandarragaz batera.

Seikoteak 5.000 kilometro baino gehiago egin ditu bere kabuz gaitutako hiru Seat Pandetan, Panda Raid lasterketa amateurraren bederatzigarren edizioan parte hartzeko asmoz. Lasterketa horretan parte hartzeko ezinbestekoa da Seat Panda edo Marbella bat edukitzea. Panda Raid Bizkaikoen kasuan 1994 eta 1998 urteetako auto bi zituzten, 42 eta 41CVkoak; Gipuzkoakoa bata, Lugokoa, bestea.

Aurtengo edizioa, antza denez, berezi xamarra izan dela aipatu dute, “elkartasun-probak ohiko izpirituari muzin egin diolako”, euren ustez. Hori dela eta, bestelako bidaia egitea erabaki zuten Panda Raid Bizkaiko mutilek, lasterketa alde batera utziz eta solidaritateari helduz, behartsuei laguntzeko. Arropa, zapatak, jostailuak, material didaktikoak eta bestelakoak herri behartsuei eroatea izan da helburu nagusi berria, batez ere, Marokoko hegoaldeko herrietakoei. Pisu hori guztia eroateko Uriak eta Pérezek Panda bat erosi zuten. Aurtengo edizioan 150 kilo baino gehiago batu zituzten,



Seat Panda bat, basamortuko arean barrena. © PANDA RAID

eta autoetan sartu ez zena Mugarik gabeko Medikuek Gobernu Kanpoko Elkartearen bitartez bidali zuten, hegazkinez, bidaia hasi baino lehenago.

Teknologiatik urrun

Panda Raid izenak *Distantzia luzea egiten den (Raid) lagunen arteko (Panda) proba* esan gura du, Seat Panda edo Marbella modeloko auto zaharrak erabiliz. Distantzia luzeko rally amateurrak da, urtero martxoan egiten dena. Lasterketa honetan 100 ibilgailuk baino parte gehiagok hartzen dute, zazpi etapatako ibilbidean.

Lasterketako antolatzaileek adierazi dutenez, wifi eta teknologia berririk gabeko proba da, “antzinako Rai-

dek egiten zuten bezalakoa”. Horrez gainera, denbora neurtzeko sistema berezi baten bidez ikuskatzen da auto bakoitzaren nabigazioa. Bestalde, ibilbide-dibertsitatea ere aipagarria da, antolatzaileen arabera: “etapa bakoitzak berezitasun propioak dauzka: zailtasunean, lursail-motan eta kilometro-kopuruan”, goraipatzen dute webgunean. Aurtengoa bederatzigarren edizio izan da, eta martxoaren 4tik 11ra iraun zuen, Nador portutik Marrakex hirirainoko ibilbidea eginez.

Panda Raid Bizkaikoak Kirol probatik urrunduz ziren, eta martxoaren 7tik 17ra izan ziren kanpoan, ibilbidea Merzouga herriraino eginez, eta bertako behartsuei laguntzeko. ◀

Menpekotasun egoeran dauden jagoleak zaintzeko

Uribe Kostako Mankomunitateko Gizarte-Ekintza saila, Sopelako Udalagaz, Bizkaiko Foru Aldundia-gaz eta eskualdeko beste Udalakaz elkarlanean, menpekotasuna duten senideen zaintzaile ez-profesional bila dabilta, gizartearen ikusgai egiteko kanpaina baten bidez. *Zainduz* programaren barnean dagoen ekimen horren helburua pertsona horien onarpen soziala egitean datza, jagole ez-profesionalek egiten duten lanak ondorio fisiko, psikiko eta sozialak dauzkalako. Edozein herritarrek zaintza-lan horietan diharduen pertsonarik ezagutzen badu, hautagai gisa proposatzea eskatzen da. Proposamenak Barrika, Berango, Gorliz, Lemoiz, Plentzia, Sopela eta Urdulizko udaletxeetan, kultur etxeetan, jubilatuen etxeetan eta kiroldegietan utzitako kutxetan utzi daitezke. Hautagaiak irailaren 4a arte proposa daitezke. Omenaldia azaroaren 10ean egingo da, Urdulizen. ◀

Ibilaldira joateko autobusa antolatuko dute Sopelan ere

Sopelako Udalak eta Uribe Kostako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak autobus-zerbitzua antolatuko dute maiatzaren 28an Mungian egingo den Ibilaldira joateko. Autobus-zerbitzua martxan ipini ahal izateko 25 pertsonak izena eman beharko dute, gutxienez. Izena emateko epea maiatzaren 15etik 24ra izango da Sopelako udaletxean, Sopelaren, Kurtzio kultur-etxean edo Udal webgunean. Errolatuek 2 euro ordaindu beharkoko dituzte; ez-errolatuek, 5 euro. Martxan ipintzekotan, irteera Sopelako elizatik izango da 09:45ean eta 09:50ean Larrausterrako Urgitxietatik. Itzulera 20:00ak eta 20:15ean izango da. ◀

ander deuna haur hezkuntzatik batxilergora

Gatzarriñe bidea, 47. 48600 SOPELA · 94 676 02 66 · 689 01 04 28
info@anderdeuna.eus · www.anderdeunakastola.eus

ARTOLOZAGA ANAIAK
Tailerrak
Mekanika · Karrozeria · Elektronika

Sopelan
Gatzarriñe z/g
94 676 00 13
94 676 38 14
www.taileresartolozaga.com

Sestaon
Miguel Servet, 6
94 472 13 74

Jatorrizko bermea mantentzen dugu!

BOSCH Service
Car Service

hiruka

Udara begira, zenbaki bereziak prestatzen gabiltza

Horietan zure taberna, denda edo aisialdirako zerbitzua iragarri gura baduzu, ez galdu aukera!

944 911 337
publi@hiruka.eus



Txirristan

MAITE
MENTXAKA TENA
Ikerkuntza ikaslea

Gora praken belaunetako aingira-belarra!

Bai, txirristan esan nuen, bertan ikusten nuelako nire burua. Hitzaren fonetika jokotsuaz akaso. Zeozerk eraman ninduelako garaietara. Baina nahiago aldapa baten imajinatzea (abestia alde baten utzita). »Txirristan» erabili dut «kulunkan» erabili ahal nuen modu berebean. Baina egun ikusten ditugun parkeen jolas-objektuen apologia ez nuke egin nahi. Inolaz ere ez. Beste horri hitz eta sentsazio eman nahi-ko nioke: espaloia, kale-kantoia, hormatxoa, izkina, zirrikitu, bankua, «tapia»... baita zelai, zuloa, belar altuko landak, enbor zatiak eta urez beteriko bidaiak ere. Zapaburuak. Erleen ziztadei alergia. Tramankuluak.

Begirada beste altuera batean, paisaiaren eskala ezberdina zenean. Jolas parkeen egituraketa hain mastekatua ez zegoenean. Handitasun, kolore eta jolas interaktiboak presentzia hartu dutelakoan pentsatzen... Pentsatzen espazio hauek umeei bideratuak daudela. Orain bazterretako txokoetaz ari naiz, benetako ikasleku puru horretaz, kaleaz. Esplorazio gu-
neak. Irudimenaren ahalmenak eskura. Aukerak. Zerk eramaten gaituen gure inguruarekin harremanak izaten eta ze ikaske-
ta mota gauzatzen den. Aztertu. Gorputzak mugitzen eta portatzen diren moduak. Zerk baldintzatzen gaitu. Horrek hunkitzen nau, eta hori maite dut, umeak auzoetan ibiltzen direnean, zelaietan, harri baten azpiko putzu saltarian mundu liluragarria ikusten dutenean. Kulunka handi eta koloreztatsuak behar ez direnekotan. Horri emango nioke denbora, espazio publikoen egituraketaren kontzientziara, paisaiarekiko eta herri egituraketa, bizipen praktika eta eraiketara. Erekuarekiko begirada kontzientearen eta arduratuaren kontzientziaren eraiketara. Gora aingira belarra praketan! ◀

Berango

Moreaga Erdi Arokoa bihurtzen denekoa



Egitarau osoa: hiruka.eus/berango.

Berango Erdi Aroko herrigune izatera bueltatuko da hilaren 19tik 21era bitartean. Egun horietan, gai horri lotutako askotariko jarduerak egongo dira Moreagan.

Urteterearen ostean, zaldunak hurreratuko dira Berango-raino berriro. Izan ere, barikutik domekara bitartean, Berango Erdi Aroko herrigune bihurtuko da. Hala, kalejirak, Erdi Aroko musika, tailerrak, kanpamentuak, falkoneria-erakustaldiak, umeentzako jolasak eta erakusketak egongo dira, besteak beste, Moreaga parkean. Merkatua arrastiko 05:00etan zabalduko

dute, barikuan. Ostera, zapatuan eta domekan, 11:00etatik 15:00etara eta 17:00etatik itxi arte bertaratzeko aukera egongo da. Azokak iraungo duen bitartean, honako talde hauek parte hartuko dute: Barzoniak, musika zelta eta folka; Pedrit Onewheel, hainbat karakterizazio dituen orkestra-gizonak; eta Teatrak la calle eta Eulali ipuin-kontalariak, besteak beste. ◀

info+: www.berango.net

Lemoiz

Bertoko euskararen inguruko liburua har daiteke maileguan

Uribe Kostako, Mungialdeko eta Txorierriko euskara liburua eskuragarri dago daborduko Armintzako kultur etxeko liburutegian, baita Lemoizko udaletxean ere. Hala, gura duenak gure eskualdeko ezaugarrien berri ematen duen lana maileguan har dezake. Liburua Koldo Zuazok eta Ur-tzi Goiti leioaztarrak egindako lana da. Hainbat lekutako berbakera bereziak ikertu ostean, euskalki nagusien azterketa txikiari ekin dio orain Zuazok, Mendebaldeko euskaratik hasita; liburu berria argitaratu du, horren nondik norakoak azaltzeko. Uribe Kostako berbeta ere bertan sartuta dago. ◀

Barrika



Aurton ere agertu da Barrikan Europako tximeletarik eta intsekturik handiena: Paboi Handia (*Saturnia pyri*). Argazkian ikus daitekeenez, 12 eta 16 zentimetro inguruko luzera du, eta bere hegoek hontz baten begien irudia azaltzen dute, harrapariak usatzeko asmoz.

Egitaraua

Maiatzak 19, barikua

17:00 Kalejirak, tailerrak, Teatrak la calle antzerki ibiltaria eta Pedrit Onewheel orkestra-gizona.

17:30 Falkoneria-erakustaldia.

18:00 Txotxongilo-saioa.

19:00 Falkoneria-erakustaldia.

20:00 Musika- eta antzerki-taldea, azoka osoan barrena.

22:00 Tailerren eta erakusketen itxiera.

Maiatzak 20, zapatua

11:00 Azoka zabaltzea.

11:30 Tailerrak abiatzea, umeentzako jokoak, kalejirak eta antzerkiak.

12:00 Teatrak la calle antzerki ibiltaria eta Pedrit Onewheel orkestra-gizona.

12:30 Falkoneria-erakustaldia.

13:00 Eulali txotxongilo-saioa.

14:00 Barzonia kalejira musikala eta falkoneria-erakustaldia.

17:30 Kalejirak, tailerrak eta malabarrak.

18:00 Falkoneria-erakustaldia.

18:30 Teatrak la calle antzerki ibiltaria.

21:00 Barzonia taldearen kontzertua.

23:00 Antzerki-ikuskitzuna, musika eta sua.

Maiatzak 21, domeka

11:00 Azokaren eta tailerren hasiera.

11:30 Barzonia taldearen kontzertua eta Teatrak la calle antzerki ibiltaria.

12:00 Falkoneria-erakustaldia.

12:30 Pedrit Onewheel orkestra-gizona.

13:00 Eulali txotxongilo-saioa.

17:00 Kalejirak, tailerrak eta malabarrak.

18:00 Teatrak la calle antzerki ibiltaria.

23:00 Antzerki ikuskizuna, musika eta sua.

Plentzia

Ekologiaren inguruan hausnartzeko aukera

Hilaren 19tik 21era bitartean, Jardunaldi Ekologistak egingo dituzte udalerrian, lehendabizikoz.

Aste-akabu honetan lehenengo Jardunaldi Ekologistak egingo dituzte Plentzian. Horien helburua da eztaba-datzea, hausnartzea, kontzientziatzea eta bestelako proiektuak ezagutzeko aukera ematea. «Ez dira garairik onenak ama lurraren osasunerako, baina ezin gaitezke ezerezean gelditu», adierazi dute antolatzaileek, «ikuspuntua aldatzeko eta ekiteko garaia heldu da, bakoitzak bere esparrutik inertiak aldatzeko garaia da».

Jardunaldiak udalerriko hainbat herritarrek antolatu dituzte, Plentziako Udalagaz elkarlanean. Alde batetik, energia baliabidearen gainean gurean zein beste herri batzuetan aurrera eramaten dabilzan proiektuak aurkeztuko dituzte. Aldi berean, basogintza eta nekazaritza ardatz izanda, herriko lurren kudeaketarako, Udala herritar tal-



Jardunaldiak udalerriko hainbat herritarrek antolatu dituzte, Udalagaz elkarlanean.

deategaz batera prestatzen dabilen proposamenaren berri emango dute. Era berean, proiektu horietakoren baitan parte hartu gura duen edozein herritarri horretarako aukera eskainiko diote. Horretaz denaz gainera, beste hizlari batzuek ere parte hartuko dute, askotariko gaiak jorrazteko asmoz.

Hilaren 19an emango diote hasiera jardunaldiei, barikuan, 19:00etan. Egun horretan, energiaren inguruko hainbat konturen inguruan berba egi-

teko aukera egongo da, 20:30era arte. Hurrengo egunean, basogintzaren gainean hausnartzeko dute, 10:30etik 11:30era. Ondoren, Txakinarto kontsumo-taldeak hamaiketako eskaini eta jarraian herri baratzeeen gaiak hartuko du eztabaidaren lekukoa, 12:00etatik 13:30era arte. Azkenik, domekan, hilaren 21ean, txango interaktiboa egingo dute Isuzkitzako herri-mindegia ezagutzera, besteak beste, 10:00etatik 14:00etara. ◀

Sorginen Alabak talde feministak jaialdia egingo du zapatuan

Sorginen lehenengo eguna ospatuko dute zapatuan, hilaren 20an, Plentzian. Sorginen Alabak talde feministak antolatuta, arrastitik gaueko ordu txikiak arte egitarauaz gozatzeko aukera egongo da aipatutako egunean. 19:30ean poteo musikatuari ekingo diote, Plentziako elizatik; horrez gainera, jolasak ere egingo dituzte. Ondoren, gaueko 00:00etatik aurrera, kontzertuak, musika jartzaileak eta ekitaldi berezia egingo dute, Danontzat gaztetxean bertan. Antolatzaileek azaldu dutenez, jaiak ordu txikiak arte iraungo du. ◀

Tamaina handiko hondakinak batzeko zerbitzua, martxan

Plentziako Udalak tamaina handiko hondakinak batzeko zerbitzuaren nondik norakoak zehaztu ditu. Azaldu duenez, edozein hondakin utzi baino lehen bilketa-zerbitzuari abisua eman behar zaio, 900 720 631 telefonora deituta. Batzeko egunak, berriz, eguaztenak izaten dira, 21:00ak baino lehen. Objektuak hondakinen gaikako bilketarako edukiontzien ondoan utzi behar dira, enbarazu egin barik. ◀

Urduliz

Alfredo Espinosa ospitaleko larrialdi-zerbitzua, martxan



Pasa den maiatzaren gan zabaldu zuten zerbitzu berria. © IREKIA-EUSKO JAURLARITZA

Joan den martitzenean zabaldu zuten Urdulizko Alfredo Espinosa ospitaleko larrialdi-zerbitzua. Uztailen inauguratu zen Urdulizko ospitalea eta, ordutik, zerbitzuen eskaintzak zabalitzen ibili dira, apurka-apurka, modu mailakatuan. Azken larrialdietako zerbitzua izan da, eta urteko 365 egunetan eta 24 orduan egongo da za-

balik. Horrez gainera, etxetik etxeko ospitaleratze-zerbitzua ere martxan ipini dute, eta datozen egunetan kanpoko kontsulten zerbitzua ere zabalduko dute. Modu berean, digestio-endoskopiarako zerbitzua eta kirurgia anbulatorio handirako ebakuntza-gelak ere abiaraziko dituzte; oftalmologiagaz hasiko dira, besteak beste. ◀

Askotariko eskaintzak, udalerriko Aste Fantastikoan

Urdulizko Merkatarien Elkartek Aste Fantastikoa antolatu du egunotarako. Hala, herritarrek askotariko aukerak izango dituzte udalerriko hainbat dendatan. Joan den astelehenean hasi ziren eskaintzak ematen, hala ere, oraindino badago zertaz go-

zatu: egunean, hilaren 18an, pintxopote berezia egingo dute hainbat tabernatan; barikuan, berriz, paper- eta kudeaketa arloko dendetan eskaintza bereziak egongo dira. Azkenik, zapatuan, bizikleta martxa egingo dute, gura duenak parte har dezan. ◀



Hemengo eta Hango

GABI BASAÑEZ RUIZ
Abeltzaina

«Eskerrik» entzun eta «kabenzotz!»

A laba bi ditut. Euren artean adin salto handia dago, baina biakaz izan dut borroka berbera; «-Iepa, zer pasa da gaur ikastolan?» «-Ezer, Aita, ezer!» «-Ahhh, ordun zeozter pasa da, ezta?» «-Pelma!» Neure uste apailean (gero etorriko da euskaltzainen bat ezezka, ziur), gaztelaniaren indarrez gertatzen da 'ezer ez' binomioa 'ezer' bihurtzea. Espainolez berba bakarrak adierazten den kontzeptua bi berbez euskaraz dela ezin buru kolonizatuan sartu. Antzeko zeozter, baina aldrebez, orain barra-barra eta lau haizetara dabilen 'eskerrik' kantxagarri horregaz. Ezetz ba, hain gatza ote da 'gracias' 'eskerrik asko' dela bururatzea? Kabenzotz!!! ◀

Uribe Kosta

«Alderdi politikoekiko mesfidantza osoa dugu»

Zone À Défendre (ZAD) guneko kideak Getxoko Tosu landaraino hurreratu ziren joan den apirilaren 26an, Euskal Herria Zadista elkartasun-biraren harira. Azaldu dutenez, Euskal Herriko esperientziek trukatzeko dinamika sortzeko aukera «politikak» zabaltzen dituzte.



Euren esanetan, «segurtasun kontuak direla eta», ZADeko kideek ez dute euren aurpegia erakutsi gura izan argazkian. TOSU BETIRAKO

TOSU BETIRAKO ►

Euskal Herria Zuzenean jaialdiaren harira, Britainiako Notre-Dame-des-Landes lurraldean dagoen ZADeko bizilagunak hurreratu ziren gurera. Hori aprobetxatuz, Euskal Herriatik bira egin zuten zadistek, apirilean eta maiatzean. Tartean, Getxoko Tosun egin zuten topaketa, joan den apirilaren 26an.

Zelan sortu zen ZAD eta zein da gaur egungo egoera bertan?

Zone d'aménagement différencié izenean, Frantziako Notre-Dame-des-Landes inguruan aireportua eraikitzeke proiektua ipini zuen martxan Frantziako Gobernuak, 70. hamarkadan. Orduan hasi zen horren kontrako mugimendua, gune hori okupatu eta babesteko. Hala ere, 70ko hamarkadatik 2010era arte, proiektua geldirik egon zen. Urte horretan berreskuratu zuten gunea eta okupatu eta babesteko deialdiak egiten hasi ziren, Zone À Défendre izenean.

Jende gehiago hurreratzen hasi zen eta manifestazioak egin ziren eremua berrokupatzeko. Ondoren, 2012an, bertatik hutsarazteko 6 hilabeteko Cesar Operazio militarra egin zuten; tar-

te horretan, ingurua blokeatu eta gose grebak egon ziren. Azkenean, François Hollande Frantziako garaiko presidentek atzera egin behar izan zuen. Ordutik, gero eta jende gehiago hurreratu zen da ZADeraino eta okupatzaileen eta nekazarien arteko elkartasuna nagusitu da inguruan. Ordutik eta 2016ra arte egoera lasaia izan da. Urte horretako helegitea ez zen onartu eta mobilizazioak hasi ziren berriro, konfrontazio zuzenak egon ziren. Manuel Valls lehen ministroak bertatik kaleratzeko agindua eman zuen, baina hori gauzatu baino lehen gobernutik bota zuten.

Aireportuaren aurkako borroka bakkarik da edo harago doa?

2009tik etorritako jendeak dio «aireportuaren eta bere munduaren aurkako borroka dela». Egia esan, askotariko borrokak daude hemen, gainera, praktika esperimentalak izan ditugu. Hartara, alde batetik, Gobernuaren kontrako borroka da, eta beste aldetik, sistemaren kanpoko alternatibak sortzeko gunea ere bada.

Frantziako hauteskunde presidentzialen ostean, zer-nolako agertokia aurreikusten duzue?

«ZADetik botatzeko operazio militarrean 2.000 soldadu beharko dituzte, gu oso ondo antolatuta gaudelako»

Gu oso ondo prestatuta gaudenez, euren operazio militarra oso ondo prestatuta egon beharko da. Hori aurrera eramateko 2.000 militar inguru beharko dituztela uste dugu, eta Frantzia salbuespen egoeran dagoenez, soldadu gehienak kaleak zaintzen daude. Hortaz, horiek denak operazio honetarako batzea ez da erraza izango. Gainera, botere politikoa izatea beharrezkoa da hori dena egiteko. Hauteskunde presidentzialen ostean legegileak datoz eta horiek egin arte presidentek ez ditu bozkak arriskatu jokaldi horretan. Udagoienara arte lasai egon gaitzeko.

Zein izan da ezkerreko alderdien posizioa gatazka horretan?

Hauteskundeetako zenbait hautagai proiektuaren aurka agertu dira: Alderdi Sozialista, Jean-Luc Mélenchon, Philippe Poutou eta Nathalie Arthaud, besteak beste. Hala ere, jakin beha-

rra dago Alderdi Sozialista hasieratik proiektua bultzatzen ibili dela eta EELV (Europe Ecologie Les Vert) proiektuaren kontra agertu dela. Dena dela, alderdi politikoek aurkako mesfidantza handia dugu. ZAD ez da apolitikoa, aitzitik, oso politikoa da, baina alderdietatik kanpo kokatzen da.

Aireportuaren inguruko kontsulta egin du Frantziako Gobernuak?

2016ko ekainean egin zuen. Oso modu mugatuan egin zuen, eremu nazionalen galdeketa galduko zuela zekiela. Irabazi zuen, galdera zuk ipintzen duzunean beti irabazten duzulako. Hala ere, aipatu beharra dago proiektuak hartzen duen eremuaren inguruko herri denetan ezezkoa atera zela.

Zein da bretoieraren egoera ZADen?

Nazionalismoa txarto ikusita dago bertan. Ez dago leku handirik hizkuntza horretarako ZADen. Batzuek hizkuntza erabili eta ikasteko borondatea izan arren, bost hiztun gara bertan. Aipatu beharra dago hizkuntza horren egoera euskararen egoeraren oso ezberdina dela, askoz hiztun gutxiago daudelako inguru horretan. ZADak ez du bere burua bretoitzat hartzen, ez dugu internazionalismo berba erabiltzen, daukan konnotazioa ez zailgularako gustatzen. Nahiago dugu intergalaktiko berba erabiltzea. Etxola intergalaktikoa eraikiko dugu udan. Hizkuntza eta kultura bretoa gure azken arazoa da; dena den, esan beharra dago hizkuntzak ikasteko aukera egon dela beti ZADen.

Zergatik antolatu duzue Euskal Herria Zadista elkartasun-bira?

Elkar ezagutzarako aukera bat da, baita zein bestean dauden dinamika, borrokak eta esperientziak elikatzen gaituelako. Bestalde, ZADeko jendeak abertzaletasunaren eredu bakar bat ez dagoela ikusteko aukera bat ere bada. Baita Euskal Herriko autogestioari eta desobedientziari lotutako antzeko praktikak ezagutzeko ere, noski! Azken finean, harreman horrek dinamika sortzeko aukera politikak irekitzen ditu. ZAD askotariko dinamika batoratzen dituen lurraldea da, ez da aireportu baten kontrako borroka hutsa. Ideia da dinamika horiei eremu bat eskaintzea. Daborduko talde bat dago bertan, auzolana lantzen. Euskal Herri brigadak etorriko dira abuztuan bertan parte hartzera. Hemengo lagunek ZAD ezagutzeko aukera izango dute; gainera, uda osoan nazioarteko kanpaldia egingo dugu bertan. Beraz, elkar ezagutzarako eta beste hamai-ka gauzarako pizgarria izan daitekeen iniziatiba bat da. ◀



Aurtongo Umore Azokan parte hartuko duten Euskal Herriko hainbat konpainiaren protagonistak. © LEIOAKO UDALA

Umorea, kalean

Maiatzaren 18tik 21era arte izango da XVIII. Umore Azoka Leioan. Parte hartuko duten mundu osoko 50 konpainiaren arteko 20 Euskal Herrikoak dira; 150 saio eskainiko dituzte.

Leioa prest dago urteko azoka esanguratsuenari hasiera emateko. Aurten maiatzaren 18tik 21era arteko aste-akabuan antolatuko da XVIII. Umore azoka, eta 11:00etatik gauerdira arte (egunean izan ezik) herriko kale nagusiak beteko dituzte umorez eta ikuskizunez.

Antzezlekuak ohikoak izango dira: Kultur Leioa, José Ramón Aketxe plaza, Errekalde plaza, Errota, San Juan Bautista plaza, udaletxeko plaza eta lorategia, Estartetxe, Boulevarda, institutua, San Jose etxesaila, Aldapa auditorioa, Udondo Boulevarda, Mendibile jauregia eta Pinosolo parkea.

Guztira, 150 ikuskizun eskainiko ditu Leioako Umore Azokak hiru egunean, eta 50 konpainiaren antzezlanak ikusi ahal izango dira, horien arteko 20 Euskal Herriko dira. «Leioan bertako konpainien aldekoak gara, baina baita kalitatearen aldekoak ere. Zorionez, Euskal Herrian talentudun sektore profesional eta artistikoa daukagu», azaldu zuen Mari Carmen Urbietak Leioako alkateak, Euskadiko Ar-

txibo Historikoan egin zuten Azokaren aurkezpenean. Ekitaldi horretan, Eusko Jaurlaritzako Kultura Promozio-ko zuzendaria ere egon zen, Aitziber Atorrasagasti. Bere esanetan, «Eusko

Antolatzaileek 500 lan baino gehiago ikuskatu dituzte, berritasun eta askotarikotasunaren bila

Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politikako departamentuko helburuen artean, bi azpimarratuko genituzke: bertako sortzaileak babestea eta ikusgarritasuna ematea».

Euskal Herriko 20 konpainiak

Bertakoak taldeak dira: Amaia Eleizaran, Barré, Tornado, Eva Guerrero konpainia, El Gran Rufus, El Mono Habitado, Ertza Dantza, Garazi & Cía, Haatik Dantza konpainia, Hortzmuga Teatro, Jaiotz Osa, Kukai Dantza & Brodas Bros, Lekittoko Deabruak,

MDV Dantza, Mugmus Laborategia, Shakti Olaizola, Teatro a la Boina, Trapu Zaharra, Turukutupá, Bilaka eta Tetes de Mûles (Iparraldekoak azken biak). *Escena Local* herriko konpainien ikuskizunen programa egingo da, bigarren urtez. Bertan, Leioako Musika Bandak *Sustraiak* kontzertua eskainiko du, XX. urteurrena ospatzeko.

Askotarikotasuna, 51 obratan

Antolatzaileek 500 lan baino gehiago ikuskatu dituzte eta «berritasunaren eta askotarikotasunaren aldeko apustua» egin dute. Emaiza izan da diziiplina askotako 50 konpainiaren 51 antzezlan eta 150 ekitaldi: musika, bertsolaritza, magia, clownak, piroteknia, multimedia, txotxongiloak, automatak eta fakirrak... Mundu-mailako 21 estreinaldi egingo dira herriko kaleetan. Goizeko jardueren artean, urteroko hiru sari nagusiak banatuko dira: kale-ikuskizun onenari saria, Euskadiko kale-ikuskizun onenari eta sari berezia ikuskizun/artista sortu berriari.

Pasa den urtean 38.000 lagun hurreratu ziren Umore Azokara. Aurten sektoreko 200 profesional etortzea espero dute ekitaldiko antolatzaileek.

+info: umoreazoka.org

Umore Azoka 2017

Maiatzak 18, eguna

- 18:30** *Raw*, Amaia Eleizaran (15'), udaletxean.
- 18:30** *Femmes*, Hortzmuga Teatro (60'), Ibiltaria.
- 18:30** *Baldin Bada*, Shakti Olaizola (45'), Aldapa Auditorioan.
- 19:30** *Historias de un Baúl* Cía. Trotamundos (50'), Aldapa Auditorioan.
- 12:00** *Suddenly*, Jaiotz Osa (13'), Udaletxean.
- 21:00** *Topa*, Kukai Dantza & Brodas (20'), Boulevarden.
- 21:00** *I'm a real Artist*, Teatro a la Boina (45'), Udondo Boulevarden.
- 22:00** *Meeting Point*, Ertza (15'), Boulevarden.
- 22:30** *Basuromio*, Turukutupá (45'), Boulevarden.
- 22:30** *Frontera*, Cía Migrants (30'), Errekalde plazan.
- 21:00/23:00** *Pausoz pauso*, Garazi & Cía (10'). Euskaraz. José Ramón Aketxe plazan.

Maiatzak 19, barikua

- 12:00** *Wet Floor*, Cía Cristina Solé (40'), Errekalde plazan.
- 14:30/15:00** *De la jungla al asfalto*, Bloc Quilombo (60'), Mendibile jauregian.
- 19:00** *Bankal Balkan*, Bazarnaüm Prod (55'), Udondo Boulevarden.
- 19:30** *Pausoz pauso*, Garazi & Cía (10'), José Ramón Aketxe plazan.
- 19:30** *Korronteari aurre eginez*, Haatik (15'), udaletxean.
- 20:00/20:30** *Libélul.la*, Toti Toronell (60'), Errekalde plazan.
- 20:00** *Fundiendo el hierro*, MDV Dantza (15'), udaletxean.
- 20:00** *Mutacions*, María Villate (20'), Pinosolon.
- 21:00** *70+1*, Haatik (15'), Udaletxean.
- 22:00/22:30** *Selfiní*, Trapu Zaharra (60'), Udondo Boulevarden.

Maiatzak 20, zapatua

- 12:30/14:00** *Odisea 80*, Nacho Vilar (60'), Ibiltaria.
- 13:00** *Bug in Buzz*, Cie Concordance (30'), Elexalde bidegurutzean.
- 13:00/14:30** *Automáticos*, Red Button (15'), Pinosolon.
- 14:00** : *#7fm*, Iker Karrera (10'), udaletxean.
- 14:00/14:30** *Primatium*, El Mono Habitado (60'), Udondo Boulevarden.
- 19:00/19:30** *Lapur Minak*, Cía Tornado (60'), San Jose Etxesailan.
- 19:30** *Esku Harriak: Oteizaren (h)aria*, Trapu Zaharra (30'), Udondo Boulevarden.
- 20:00** *Anatomik*: Madam Kanibal (30'), Errotan.
- 20:00** *Rojo Estándar*, Lanórdika (45'), Mendibile jauregian.
- 20:30/21:00** *Sustraiak*: Leioako Musika Banda (50'), José Ramón Aketxe plazan.

Maiatzak 21, domeka

- 12:30** *Polos*, Compania ES (30'), Errekalde plazan.
- 12:30-13:00** *La Guardia Reial*, La Guardia Reial (60'), Estartetxe kalean.
- 13:00/14:30** *Little boy, the king of harmonica*, La Malette (4'), Pinosolon.
- 13:30** *Esvorell*, Project Esvorell (45'), Boulevarden.
- 14:00/14:30** *Steam Funk Show!*, El Puntillo Canalla Brass Show! (70'), Udondo Boulevarden.
- 14:00** *Naufragio Universal*, Marco Vargas & Chloé Brulé (4'), Pinosolon.
- 15:00** *Sormen musikal tailerra*, Jon Sagarrabanana, Pinosolon.
- 19:30** *Gaztaren jaitsiera*, Pinosolon.

Erdi Aroa protagonista aste-akabuan

Maiatzaren 19tik 21era arte Erdi Aroko Azoka antolatuko dute Berangon, 10:00etatik aurrera. Merkatuaz gainera, kalejirak, txotxongiloak, ipuin-kontalaria, belatzen ikuskizunak, umeentzako jolasak eta abarrak egongo dira.◀

Udaberria musikaz agurtzeko emanaldia

Maiatzaren 21ean Erandioko musikabandak doinuaz jantziko du Alzaga-ko Irailaren 23a plaza. Eguerdialdera, Udaberriko Kontzertua eskainiko du, adin guztientzako musika saioa, kalean bertan eta doan, 13:00etan.◀

Faunaz jardungo da Buenetxea Getxon

Xabier Buenetxea fauna-kudeaketarako teknikari adituak *Getxo: Evolución de su fauna hacia el siglo XXI* berbaldia eskainiko du hilaren 22an, 19:30ean, Villamonten. Saioa Getxoko XX. Jardunaldi Botanikoen barruan kokatuta dago.◀

Mihiluze finala

18:00 | Kurtzio kultur etxea | Sopela
EITBko umeentzako telebista programaren finala egingo da. Saioa euskara hutsean eta doakoa izango da.

ERAKUSKETAK

XX. Erakusketa botanikoa

11:00-14:00 | Telagorri plaza | Getxo
Erakusketan Getxoko faunak eta lurzorua landare eta perretxikoetan duen eraginaz hitz egingo da Getxoko XX. jardunaldi botanikoetan. Sarrera doan, adin guztientzako izango da.

Madre sólo hay una

20:00 | Kultur Leioa | Leioa
Perseo Zineforumak Hegoamerikar Zinema Zikloaren Anna Muylaerten *Madre sólo hay una* zinta proiektatuko du. Sarrera: 2,5 euro.

TXANGOAK

Getxoko inguruak

09:00-13:00 | Getxo
Getxoko XX. Jardunaldi Botanikoko programako ekimena. Getxoko inguruetatik ibilbidea egingo dute, landareak batzeko. Arrastian batutakoen sailkapena egingo dute.



Literatura eta kantuak uztartuko ditu Plentziako eta Gorlizko Agenda Bateratuak antolatutako ikuskizunak. © FERNANDO ANBUSTEGI

Kontu eta Kantu, istorio eta doinu

Kontakizunak eta kantuak uztartuko dituen saioa eskainiko du Fernando Anbustegik Plentzian. Istorio propioez gainera, bertsoak ere kantatuko dituzte. Jardueraren helburu nagusia umeek ondo pasatzea bada ere, literatura eta bertsolari-tzarekiko atxikimendua ere lortu gura da.◀

Noiz: Maiatzak 20.
Ordua: 18:00.
Non: Plentziako Danontzat Gaztetxea.
Sarrera: Doan.

Enrique San Francisco bizitzako eguneroko egoerez jardungo da

Enrique San Franciscok eta Raúl Fervé komikoei *Una Noche con Enrique San Francisco* ikuskizuna eskainiko dute Andrés Isasi musika-eskolan, maiatzaren 20an. Eguneroko egoeren inguruko emanaldia da, aktoreak ironiaren bidez jorratzen du. Bakarrizketak *El Club de la Comedia*, *El Hormiguero* eta bestelako saioetan eskainitakoak dira. Sarrerak 15 euroan daude, musika-eskolan bertan.◀



Enrique San Francisco. © MPC MANAGEMENT

Adiskidetasunaren balioak dakartza Albert filmak

Kalleby izeneko herri batean bizi da Albert. Mutil traketsa eta okerra da gure protagonistia eta bere azken barrabaskeriak herri osoa haserraraziko du. Egoera konpondu ahal izateko Egon adiskidearen laguntza behar izango du. Danimarkako lanak 81 minutu irauten du; euskaraz emango dute Kurtzio kultur etxean.◀

Zure ekitaldiren bat hemen ikusi nahi baduzu, bi aukera dituzu:

1 Bidali informazioa helbide elektronikoa honetara: hiruka@hiruka.eus

2 www.hiruka.eus atarian Komunitateko kide egin eta zuk zeuk sartu ahalko duzu ekitaldia Agenda atalean.



Gaizka U. Loroño, Ainhoa Ortells, Adirane Azkuenaga eta Ibon Garagarzaren lanak ikus daitezke Madrilén. Erakusketako argazki bat. © ADIRANE AZKUENAGA

Garrobikoak, Madrilén

Uribe Kostako kolektiboak arte-erakusketa ipini du Madrilgo Art Roomen; ekainaren 6ra arte.

Maiatzaren 11n Garrobi kultur elkartearen erakusketa kolektiboaren inaugurazio ofiziala egin zen Madrilgo Santa María kaleko Art Room aretoan. Inaugurazio egunean, per-

formancea izan zen erakusketa-aretoan bertan, eta hasiera eman zitzaion hainbat diziplina jorratzen duen bertako artisten lanen erakusketari.

Gaizka U. Loroño eguneroko eszenak erakusten ditu bere argazkien bi-

tartez aretoko hormetan, errealitateko kapturatik harago joateko helburuagaz. Horretarako, *bokeh* kontzeptua garatu du bere lanetan, argazkietan harridura sortzeko, argazkien ikusleak artistaren hausnarketak interpreta ditzan. Ainhoa Ortellsek pintura ikusteko modu bi proposatzen ditu: alde batetik, pintura zibilizatua, (garatutakoa, ikasitakoa), eta historia-aurrekoa, bestetik

(naturalagoa, basatiagoa, freskoagoa). Ikuslea koloretako brotxa ukitu jostalariakaz egindako erretratu berezien lekukoa izango da. Adirane Azkuenagak estetikaz harago doan hausnarketa egiten du bere argazkiakaz. Gure historia ezagutzeko eta memoria gordetzeko helburuagaz ateratzen ditu argazkiak. Ibon Garagarza Bergerrek mapak erakusten ditu erakusketa honetan; hausnarketara bultzatu gura du ikuslea, errealitatea azaltzea baino. Mapen bidez, ingurua fisikoki baino, mentalki ulertu gura dugu, eta horixe da artista-aren helburu nagusia. Artile feltroaren sormen-teknika erabili du bereziki erakusketan, alfonbra antzadun lorategi emozionalak sortuz.

Sustraietatik indartsu

Garrobi kolektiboak 2014an sortu zen, Gaizka U. Loroñoren, Ines Bermejo, Ainhoa Ortellsen, Jone Saitua, Adirane Azkuenagaren, Ibon Garagarza Beregeren eta Endika Basagurenen ekimenez, besteak beste. Hiru urte darozate gogor elkarlanean, eta euren helburua «errutina kulturalak sortzea da, herriari helarazteko». Berba horiek erabili zituen Jorge Oteizak *Quosque Tandem* lanean, Euskal Herriko esparru artistikoko obra adierazgarrienetarikoan. Garrobi talde heterogeneoa eta diziplina askotarikoa da, eta Endika Basaguren garrobitarrek gidaturiko Madrilgo azken erakusketa hori heterogentasun horren adibide argia da. ◀

Hitza emanda



Umorea

*Hain da osasuntsua
barre egitea...
bi txiste, hiru keinu,
hori da artea!
Utzi malaletxea,
aurpegi tristea,
eta goza bizitza
umorez betea!*



UNAI
ANGULO
ALDEKOA
Bertsolari getxoztarra

HIRUKAK proposatutako hitz baten harira, ALBEko kideek bertso bat jarriko digute atal honetan, astero-astero.



Mihiluze saioko final handia Sopelako Kurtzio kultur etxean jokatu da, maiatzaren 26an

Uribe Kostako Mihiluze lehiaketaren finala maiatzaren 26an jokatu dute, hurrengo barikuan, 18:00etan, Sopelako Kurtzio kultur etxean. Antolatzaileek azaldu dutenez, «lehiaketaren helburu nagusia da Uribe Kostako 10 eta 14 urte bitarteko gaztetxoei ezagutaraztea bertoko kultur eta hizkuntz ondarea; ahozkoa eta idatzizkoa». Martxoaren 6az geroztik dabilta parte-hartzaileak ikasten, astez aste *mihiluzeuribekosta.com* webgunean ipini dizkieten gaitegien edukia jaitsez; Uribe Kostako «herriak», «ingurua», «kultur ondarea», «esaera zaharrak» eta «kantak» ezagutu eta ikasi behar izan dituzte; eta horien gainekoak izango dira finaleko galderak eta ariketak ere bai.

Finalean, lehenengo txanpan, hamasei bikoteren arteko lau sailkapen-erronda egongo dira; horien artean sailkatuko diren lau bikotek parte hartuko dute azken norgehiagokan. ◀

Antzerki amateurraren azken saioak, Berangon

Maiatza helduentzako hilabetea izan da aurten, Antzerki Amateurraren VI. Jaialdia dela eta. Berango Antzokiak antzinarikoa *Motín de Brujas* obra eskaini zuen hilaren 6an. Maiatzaren 21ean, *La Tercera Palabra* eskainiko du Derioko Sutorioan antzerki-taldeak jendarte. Hiru ekitaldiz osatutako obra antzinarikoa hori Alejandro Casona antzerkigileak idatzi zuen 1953ko maiatzean.

Hilabete amaiera aldera, maiatzaren 27an, Berangoko Txirlora antzerki-taldeak *El Caso de la Mujer Asesinada* obra ekarriko digu oholtza gainera, Antzerki Amateurraren VI. edizioari amaiera emanez. Miguel Mihura eta Álvaro de La Iglesiak idatzi zuten 1946ko otsailaren 20an eta Madrilgo María Guerrero teatroan estreinatu zen. Antzezlanak Mercedes emakume dirudunaren bizitza kontatzen du. Etxe handi batean bizi da, eta gau batean amesgaizto bat izango du, zeinean senar-e-



El Caso de la Mujer Asesinada, hilaren 27an.

mazte baten eta sioux indio baten bisita izango duen, Mercedes bere etxe propiotik bota guran. Ikuskizuna gaztelaniaz izango da eta sarrerak 3 euroan daude salgai Berango Antzokian bertan. Hilaren 6an *Motín de Brujas* ikuskizuna aurkeztu zuen Sopelako Itzartu antzerki-taldeak. Josep M. Benet i Jornetek 1975ean idatzitako obraren moldaketa da, eta ilargi beteko gau batean sei emakume eta gizon bati gertatzen zaien istorioa kontatu zen Berango Antzokiko eszenatokian. ◀

argi
hizki
ak²⁰¹⁷

a



ARGAZKIETAN OINARRITUTAKO TESTU LABURREN VI. LEHIAKETA **Maiatzaren 31ra arte**

Maila bi: 16-18 urte bitartekoena eta 18 urtetik gorakoena

Atal bi: **Testu labur-laburrena** (160 karaktere, gehienez) eta **laburrena** (100 berba, gehienez).

Testuak webgunearen bitartez helaraztea beharrezkoa da.

LEHIAKETAREN OINARRIAK ETA ARGAZKIAK IKUSTEKO:

www.argihizkiak.eus



«Ahalegin handia egiten dugu irismena handitu eta errentagarri izateko»

Jone Guenetxea Arrindak (Abadiño, 1978) bi hilabete pasatxo daramatza Tokikom tokiko komunikabideen bateraguneko presidente. Durangaldeko *Anboto* euskarazko komunikabideko zuzendaria da bera. Hainbat gairen gainean berba egin du *Puntua* aldizkarikoakaz (Goiena); betiere, etorkizuneko erronkak ardatz hartuta. Elkarrizketa horren alde mamitsuenei erreparatuta, hona HIRUKAren laburpen moduko bat.



TESTUA: **JOKIN BEREZIARTUA** / ARGAZKIA: **XABIER URZELAI**

Ohitu zara kargu berrira?

Orain arte eroso sentiarazi naute Tokikomeko langileek zein gainerako bazkideek. Administrazio Kontseiluan jardun dut orain arte ere, eta, beraz, esku artean ditugun gaiak ezagunak egiten zaizkit. Baina erabakiak ez ditut nik bakarrik hartzen. Ezta nahi ere. Tokikom oso anitza da eta denon artean adostasunetara heltzeko borondatea izatea ezinbestekoa da.

Presidente kargu bat izanda, norbaitek pentsa lezake aberastu egingo zarela. Hala da?

Elkartegintzan dabilen edonork badaki horrelako leku batean presidente izatea zer den. Tokikomen legez, *Anboto*n zuzendari izan diren guztiak militanteak izan dira, eta ez dute ezer kobratu. Sinisten duzun proiektu baten alde lan egitea da kargua hartzeko motibazio nagusia, eta ez ekonomikoa.

Mikel Irizar, Urko Aristi... orain zu. Zertan igarriko dute Tokikomen bazkideek? Eta gainontzekoek?

Aurrekoek lan itzela egin dute; horrek presio puntu bat ematen du. Tokikom martxan ipintzeko behar zen indarrarekin etorri zen Irizar, eta hasierako erabakiak hartzen asmatu zuen. Urko Aristik ere ekarpen handia egin dio proiektuari. Ordezkaritzarako ahalmen handia du, eta Nafarroan eragiteko ahalegin handia egin du. Bide onetik goazela uste dut, eta markatutako helburuei eustea ez da lan makala izango. Hala ere, kargua hartzeko beste arrazoietako bat Bizkaian eragiteko gogoia izan da. Hor ahalegin berezia egingo dut.

Erronken artean, zeintzuk dira nabarmentzekoak?

Erronka ugari ditugu, arlo askotan lantzeko. Arlo komertzialean, publizitate kanalarik lotutako erronka nabarmenduko nuke. Tokikom kanala errealtatea da dagoeneko. Arlo digitalean urrats garrantzitsuak egin ziren 2016an; hori abiarazteko giltzarri Tokikom plataforma izan zen. Gaur egun, Tokikom kanala osatzen

“Bizkaian eragiteko gogoia izan da kargua hartzeko beste arrazoietako bat; hor ahalegin berezia egingo dut”

duten 23 agerkari digitaletako publizitatea klik bakararekin kudeatzen dugu. Kapilaritate handiko sare hiperlokala biltzen da Tokikom kanalean; euskarazko eduki digitalen erabiltzaile multzorik handiena da berau: hilean 600.000 bisitatik gora, 1.500.000 orrialde erakutsita, 250.000 erabiltzaile. Aipatzekoa da Madrilgo eta Kataluniako merkatuetan ere saltzen hasi garela. Beraz, apustu garrantzitsua egin eta egiten jarraitzeko asmoa dugu. Horrek balio izan digu papearren kasuan ere publizitatearen kudeaketa sistema ekoizpen prozesuarekin bateratzera animatzeko. Papearen argitaratzen duten Tokikomeko 18 bazkidek

edizio sistema profesional baten gainean lan egiteko hautua egin dugu. Kudeaketa arloan, berriz, Euskalitekin batera Kudeaketa Aurreratuaren programan sartu gara, kudeaketa eraginkorragoa izateko.

Erakundeekin nolako harremana dauka Tokikomek? Udalekin, foru aldundiekin eta Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politika Sailburuordetzarekin?

Bazkideek bere esparruko udalekin harremana dute. Tokikometik, Aldundiekin eta Nafarroako gobernarekin. Gipuzkoan eta Nafarroan oso harreman jarraitua dugu; eredu hori Arabako eta Bizkaiko aldundietara zabaltzeko nahi dugu. Elkar ezagutu eta elkarrekin hitz egiteko kanal egonkorak sortu gura ditugu.

Egon zarete EAJren eta PSE-EEren gobernuoko Kultur sailburu berriarekin?

Jaurlaritzako sailburu, sailburuorde eta zuzendariekin maiztean egongo gara. Azalduko diegu guk egiten duguna estrategikoa dela euskararendako eta euskal kulturgintzarako. Ezagutzen gaituzte, noski, baina harremana estutu gura dugu. Erakundeak eta eragile sozialok eskutik ebatuta joan behar dugu, baina horretarako norabidea adostea da gure nahia.

Hekimen-eko parte da Tokikom. Zein da Tokikometik begiratzuz gero, Hekimenek duen erronka?

Etengabe eta ziztu bizian aldatzen ari den sektore bateko aktoreak gara euskarazko hedabideak, eta paradigma berriei egin behar diegu aurre, sarean.



Sarean bi zentzutan: batetik, Interneteko sareak eta sare sozialek dakarten aukerak, gure txikitasunetik era inteligentean baliatuz eta masak eta bolumena eskatzen dituen merkatu horretan desberdintzea lortuz. Teknologien etengabeko lasterketan inbertsioak partekatu eta sinergiak aprobetxatzean begia jartzera eraman behar gaitu horrek. Bestetik, euskal komunitatea zabaltze eta indartze aldera sektorea artikulatzean dago erronka, euskal hedabideak euskararen hedapen eta normalizazioan burutzen duten lanaren bitartez Euskal Herriko esparru desberdinetan –nahiz geografikoetan zein sektorialetan– euskaraz (z) bizi ahal izateko aukera egon dadin.

Tokiko hedabideek nola bizi dute kazetaritzak bizi duen krisi bikoitza, hau da, hedabideena eta ekonomikoa? Orokorren aldean zerk bereizten gaitu?

Tokiko kazetaritza hazten ari da. Interneteko datuak gorantz doaz etengabe; telebistak digitalizazioan gutxien sufritu dutenak dira ikus-entzule zifrei dagokienez; berdin, irratietan. Horrek erakusten digu gertuko informazioa badela bezeroek nahi duten edukia. Estimaten dute eta jasotzen duten horren parte sentitzen dira. Utz ezazu banatu barik buzoi batean eta segituan duzu deia erredakzioan. Gure bezeroa fidela da, eta zorrotza. Gure edukia ere gero eta kalitatezkoagoa da, bezeroak merezi duelako. Horrekin egiten diogu aurre hedabideek berez duten krisiari. Krisi ekonomikoak gogor jo du bai tokikoan eta bai orokorrean. Eskertu egin behar diegu tokiko komertzioei

gertuko hedabideetan egiten duten apustua. Oraindik ere inbertsioa tokikoan egitea errentagarri eta eraginkor zaie. Bestalde, kontsumitzaileek denbora errealean nahi dute edukia; horretarako, gertutasuna gako bihurtu da. Klik batera dagoen edukiz josita dago Internet; gainera, komunikatzeko eta elkarriketak ahalbidetzeko tresna itzela da. Tokikook elka-

“ **Sasoi berrietara etengabe moldatzeko eta erronka berriei aurre egiteko batzea ezinbestekoa dugu** ”

rrizketa eta gertutasun horren bidez desberdintzea lortu dugu. Komunitatearen fideltasuna lortu dugula esan dezakegu. Hala diote bai Hekimenek egindako Interneteko kontsumoaren inguruko azken azterketek, baita nazioarteko zenbait ikerketek ere.

Zer diote ikerketa horiek, zehazki?

Hedabideen munduan, informazio lokal eta hiperlokala gero eta esanguratsuagoa da irakurleentzat. Euskal komunitatearen kasuan ere tokikoak pisua hartzen ari dira; besteak beste, Hekimenek 2016ko urtearen amaieran kaleratutako azterketa baten arabe-

ra, euskarazko tokiko hedabideen Interneteko saioak hedabide orokorrena gainditu zuen –10 milioi saio– eta sare sozialen kasuan, Facebooken ere nabarmen gaintik dabil. Horren gakoetako bat izan daiteke tokikoek lortu duten sinesgarritasun eta fidelizazio maila. 2015ean Michael Porterrek beste zenbait ikerlarirekin komunikabideen sinesgarritasunaren inguruan egin zuen azterketa baten arabera, toki komunikabideen sinesgarritasuna sare sozialen eta hedabide orokorren gaintik zegoen euskarri guztietan.

Teknologia berriak mehatxua ala aukera dira?

Teknologia berrietan, Tokikomeko kideok elkar eragiteko gunea aurkitu dugu. 2017rako ezarritako erronketako asko teknologia berriei eta Internetekin lotuta daude. Tokikomeko kanal digitalean 16 webgune ditugu; motor beraren gainean, nork bere berezitasunak dituen arren. Berrikuntzak eta aurrera begirakoak elkarrekin zehazten ditugu. Inbertsioak elkarrekin egitea ere aurrerapauso handia da. *Gurenews* izeneko bilatzailea txertatzea izango da hurrengo erronka. Bestalde, proiektu zehatzak ere azpimarrituko nituzke; *gurean.eus*, esaterako. Konturatu ginen guztion artean hilean kirol arloko 1.500 albiste lantzen genituela. Tokikomeko hedabideetako albisteak gaika webgune bakarrean batzen dituen webgunea da *gurean.eus*; harrera oso ona izaten ari da. Beste proiektuetako bat umeei bideratutako aisialdirako tartea da [denbora-pasak]; *Aiurriren* eskutik paperean txikitxoei zuzendutako edukiak lantzen hasi gara; horrek *plazanbazan.eus* webgunearekin lotura du. Webguneekin ikasi dugu estandar lehiakorra izatea ona dela, eta bakoitza edukietan indar eginez bereizi behar dela. Izan ere, hedabideok batuta handi gara.

Tokikom etengabeko aldaketaren gurdira igo dela esan daiteke?

Hedabideen jarduna asko aldatu da azken urteetan, badirudi joera horrek ez duela etenik izango. Beraz, hedabideok moldatzeko gaitasuna nahitaez izan behar dugu. Talde ikuspegitik, indar txikiak batzeko beharra eztabaida ezina da. Argi dugu hedabide bakoitzak bere berezitasunak dituela eta horri eustea garrantzitsua dela. Hala ere, sasoi berrietara etengabe moldatzeko eta erronka handiei aurre egiteko batzea ezinbestekoa dugu. Aurrera begiratzeko eta proiektu berriak martxan jartzeko ilusioa sumatzen dut.

Irismenak eztabaida sortu du sektorean. Zein iritzi duzu hautsak harrotu dituen gai horren inguruan?

Esango nuke irismenak berak baino gehiago, Jaurilartzaren diru-laguntzen banaketak sortu duela eztabaida. Izan ere, irismena izatea edozein hedabidek bere buruari jartzen dion helburua da. Gero eta eraginkorragoak izan gura badugu, gero eta irakurle gehiagorengana heltzea ezinbestekoa da. Tokikook ahalegin handia egiten dugu horretan. Hori kontuan izatea logikoa da euskararen sustapenaren ikuspuntutik ere. Gertuko hedabideok euskaldunengana, ia euskaldunengana eta erdaldunengana ere heltzen garelako esaten digute inkestek. Oso garrantzitsua da hori. Ikusten ari gara, esaterako, gure Interneteko jardunarekin merkaturaren konpetitzera heldu garelako. Tokikomeko hedabideetan publizitatea jartzea errentagarria zaio bezero komertzialari eta errentagarritasuna ematen digu dugun irismenak. Irismena kontuan hartzen du, noski, publizitatea jartzen duenak, eta normala da hizkuntza politikek ere aintzat hartzea. ◀



«Tatamiaren gainean hoberena» egiten ahalegindu eta Espainiako txapelketa irabazi du Eunate Etxebarriak.

Eunate Etxebarria Bilbao judo-borrokalaria algortarrak lortu zuen Espainiako eskolartekoetan judo-txapelduna izatea, Valentzian. Haur-mailan lehiatu zen.

Hego Euskal Herriko judokek emaitza bikainak lortu zituzten pasa den maiatzaren 6an eta 7an, Valentzian. Estatu espainiarreko eskolarteko txapelketa egin zen bertako Fuente San Luis kiroldegian, haur- eta kadete-mailan. Bertan, Eunate Etxebarria Bilbao algortarra eta Getxo Judo Klubeko kideak

urrezko domina jantzi zuen haur-mailan, 63 kiloz azpiko mailan.

Etxebarriaren garaipena urte askoren emaitza izan da, berak azaldu duenez: «judoan hasi nintzen orain dela urte nahikotxo eta honetarako entrenatu naiz beti. Gogor entrenatu dut azken denboraldi honetan eta klubekoek asko lagundu didate». Horretaz gainera, «ta-

tamiaren gainean hoberena» egiteko grina «eta disfrutatzeko» gogoia eroan zituen Valentziaraino, aitortu duenez. Helburu biak lortuta, «oso pozik etorri nintzen egin nuenagaz». Poztasunagaz batera, beste sentimendu bat nagusitu zitzaion buruan irabaztean: esker onarena. Izan ere, judoka algortarrak berba onak besterik ez dauzka Agus bere entrenatzailearentzat eta Getxo Judo Klubeko adiskideentzat.

Valentzian lortutako urrezkoak Etxebarriaren grina indartu du; hala, daborduko prest dago «gogor entre-

natzen» segitzeko, klubeko kideak laguntzeko eta, «ahal bada» horrelako emaitzak errepikatzeko. Denera, euskal ordezkariak 21 domina batu zituzten Valentzian: urrezko lau, zilarrezko zazpi eta brontzezko hamar. Lurraldeka, Nafarroa Garaiak batu zituen metal gehien: hamar. Ondoren geratu ziren gipuzkoarrak, 7 dominakaz. Azkenik, berdinduta, Bizkaiko eta Arabako judo-kek bina metal ekarri dituzte. Bizkaian, Etxebarriarenaz gainera, Deniba Konare durangarrak ere domina bat eskuratu zuen, brontzezkoa. ◀

Leioa Waterpolok maila mantendu du, kostata

Leioa Waterpoloko gizonezkoen senior-taldeak denboraldi ofiziala amaitu zuen pasa den maiatzaren 6an. Leioaztarrek algaraka eta lasaitu ederragaz hartu zuten azken partidaren amaiera. Izan ere, Euskal Herriko Lehenengo Mailan segituko dutela ziurtatu zuten aurretik, igerilekuan. Sakonetakoek 11-7 irabazi zioten Gasteizko Lautada taldeari partida bakarreko kanporaketan. Hala, datorren denboraldian haiek izango dira Lehenengo Mailan jokatuiko dutenak, bederatzigarren biderrez segidan gainera. Galtzen ibili ostean, partidak laugarren laurden bizia izan zuen, etxekoek 6-0 egin



© LEIOA WATERPOLO

baitzuten aldi horretan, harmailan eromena isiotzen. Sakonetako publikoak amen batean eroan zuen aurrera etxeko taldea. Klubaren ustez, Lautadaren aurkako gorabeherek ondo islatu zuten Leioak egin duen denboraldia. ◀

Gazte-txapelak, Urresti eta Garai surflarientzat

Euskal Herriko Gazte Surf Zirkuituaren lehenengo proba jokatu zen pasa den aste-akabuan, Sopelako eta Getxoko Barinatxe hondartzan. Euskal Herriko eta estatu espainiarreko 44 neska-mutilek parte hartu zuten txapelketan, 18 eta 14 urtez azpiko mailetan bananduta. Zapatuko jardunaldia euritsua izan bazen ere, aste-akabu eguzkitsua izan zen. Modu berean, olatuak txikiak izan arren, surflari gazteek trebetasuna erakutsi zuten, itsas baldintza horiek baliatuta. Sara Urresti sopeloztarra eta Endika Garai leioaztarra nagusitu ziren 18 urtez azpikoen artean. 14 urtez azpiko



© EUSKAL HERRIKO SURF FEDERAZIOA

lehiari dagokionez, Janire González-Etxabarri zumaiarrak eta Iker Triguerosen irabazi zuten, azken hori Peña Txuri surf-eskolako kidea da. Maila horretan, Markel Bizkarguenaga gortiztarra bigarren izan zen. ◀



TXORIERRI POLITEKNIKA IKASTEGIA BERRIKUNTZAN NAGUSI GARA LANBIDE HEZIKETAN

Edozein teknologia garatzean, ezagutza berriak sortzen dira, elkar elikatzen duten mekanismoen bidez; horiek teknologia horren etekina hobetzen dute. Gurean, Prozesuen araberrako Kudeaketaren eredua erabiltzen dugu; horrek berrikuntza identifikatzeko prozedura sistematiko bat dauka. Eta zenbait Berrikuntza Teknologikoko Proiektutan dihardugu, Lanbide Heziketaren Berrikuntzarako Zentroaren (Tknika) koordinaziopean, eta Eusko Jaurlaritzak diruz lagunduta.

Ikasturteko honetako proiektu horiek honako hauek dira:

3Dko inprimaketa-materialak

Fabrikazio mekaniko, elektriko eta aeronautikoaren alorrei dagokien 3Dko inprimaketaren material didaktiko eguneratua sortzea da helburua. Material berriak sortzea beharrezkoa izango da, eta fabrikazio gehigarriko aplikazioak lortzea ere bai. Eguneratuta legokeen dokumentazio hori oso berritzailea litzateke Lanbide Heziketako Zentroetan.

Direct servo, konformazioan

Big data analytics trataeragaz (datu kopuru handien trataera) uztartuz gero, fabrikazio aurreratuko teknologiek denbora errealean erabaki adimentsuak hartzeko gaitasuna emango diete enpresei. Datu horiek produkzioa denbora bizkorragoan egitea ahalbidetuko dute eta, ondorioz, kostu murrizketak ere ekarriko dituzte.

UHSS altzairuen beroko estanziorako erremintak eta material konposatuen ebakitzea

Asmoa da material didaktikoa sortzea, beren beregi, hurrengo arloetan: ibilgailuen karrozeriako piezak beroan markatzeko alorrean; material konposatuen aurrez egindako piezak ebakitzeko tresnen diseinuaren metodologian; eta, beroko estanziozko lanabesetan.

Proiektuak amaitzean, material didaktikoa sortuko da; horrek praktiken bilduma ere jasoko du. Oso erabilgarria eta berritzailea izango da; horri esker, goi-mailako hainbat ziklotako ikasleen soslai profesionalak ere hobeak izango dira. Gerora, material hori beste zentro batzuetako irakasleei ere helaraziko zaie.



Untzaga Ibaia Kalea, 1 | Tel.: 94 403 40 60 | info@txorierri.net
48160 - DERIO | Fax: 94 403 40 61 | www.txorierri.net



Ikastegia ezagutzeko eguna

Ekainaren 8a, 18:30etik aurrera

Zatoz gure instalazioak, tailerrak eta laborategiak ezagutzera.

BATXILERGOA

• Zientziak eta Teknologia Batxilergoa

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

• Mekanizazio Teknikaria

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

• Fabrikazio Mekanikoko Diseinuko Goi-mailako Teknikaria

• Produkzioa Programatzeko Goi-mailako Teknikaria

• Automatizazioa eta Robotika Industrialeko Goi-mailako Teknikaria

• Telekomunikazioa eta Informatikako Sistemako Goi-mailako Teknikaria

• Salmenten eta Merkataritza Esparruen Kudeaketako Goi-mailako Teknikaria

• Ingurumen Hezikuntza eta Kontrolako Goi-mailako Teknikaria

Getxosaskik ez du igotzea lortu



David Saizek entrenatzen dituen jokalariek denboraldi bikaina egin dute.

Ezustekoa gertatu zen pasa den maiatzaren 6an. Algortako Fadura kiroldegian jokatu zen emakumezkoen saskibalo-ligako Lehen Mailarako igoera-faseko partida bietako bat. Etxeko taldea, Burdinola Getxo, zen faborittoa, Bigarren Mailako ligan bigarren geratu ostean, txapeldunagaz puntutan berdinduta. Halere, finaletik kanpo geratu zen finalerdian Sensitest Navarro Villosladaren aurka 49-58 galdu eta gero; aurretik, iruindarrak bosgarren sailkatu ziren ligan eta Getxoren aurkako partida bietan galdu zuten.

Getxoztarrek Lehenengo Mailara itzultzea zeukaten helburu baina ez ziren finalerdia gainditzeko gai izan.

Lehen zatia oso orekatua izan zen eta atsedenaldira 30-33 iritsi ziren, bigarren zatirako dena erabakitzeke utziz.

Atsedenaldia eta gero etxekoak agintzen hasi ziren baina hirugarren laurdeneko azken minutuetan ez ziren fin ibili eta nafarrak horretaz baliatu ziren 6 puntuko aldea lortzeko: 40-46. Abantaila hori oso ondo kudeatu zuten eta azkenean 9 puntuko aldeagaz irabazi zuten. Getxo finaletik kanpo utzita, Lehenengo Mailara igotzeko azken txartela jokatu zuen Sensitest Navarrok, Villosladak Express Hondarribia Ikasbasket talde gipuzkoarren aurka. Azkenean, igoera Hondarribikoek lortu zuten, erdietsitako 46-58 emaitzari esker. ◀

Bizkaiko eskolartekoen finaletakoa bat, Sopelan

Pasa den maiatzaren 6an Zorroztan hasi ziren Bizkaiko eskolarteko kirol-lehiaketaren finalak, atletismoko probakaz. Ondoren, pasa den astean Algortaraino heldu ziren. Halere, aste-akabu honetan egingo dira final gehienak. Sei mila umek baino gehiagok hartuko dute parte eskolartekoetako final denetan, tartean Sopelan. Maiatzaren 20an eta 21ean izango dira geratzen diren 20 finalak, Sopela, Sestao, Ortuella, Barakaldo, Bermeo, Bilbo eta Durango udalerrietan. Bizkaiko Foru Aldundiak antolatutako Eskola Kirola 2016-2017ko programaren azken ekitaldi horiek Bizkaiko udalerrien

eta kirol federazioen lankidetzari esker egingo dira.

Uribe Kostari dagokionez, pasa den zapatuan errugbi-finala jokatu zuten Faturako kiroldegiko «bonboi-kaxan»; modu berean, hondartza-boleibolaren finalak ere izan ziren, Ereaga hondartzan, kimu eta benjamin mailetan. Domeka honetan, ostera, mendi- eta eskalada-probak egingo dituzte Sopelako inguruetan, foru-iturriek azaldu dutenez. Eskola Kirola 2016-2017ko programaren azken ekitaldiak dira eskolarteko finalak: umek 36 diziplinatan jardungo dute; denek kamiseta bat jasoko dute sari gisa. ◀



Aldundiak ikusarazi gura du zer zabala den Eskola Kirola programaren eskaintza. © BFA

Eskualdeko jokalariek, Euskadiko Txapelketan

Pasa den zapatuan, aurtengo Zazpiko Serieen Euskadiko Txapelketa estreinatu zuten emakumezkoen errugbi-taldeek, Hernanin. Hamar taldek jokatu zuten lehenengo jardunaldia, multzo bitan. Lehiakideen artean, Plentziako Kakarraldo errugbi-taldea barne hartzen duen Durango-Uribe-Zornotza taldea eta Getxo Rugby Taldea izan ziren. Hala, hamar taldek jokatu zuten txapelketaren estreinaldian: Durango-Uribe-Zornotza, Getxo Rugby Taldea, Avia Eibar, Hernani, Orkli Ordizia, Bera Bera Termas, Gernika, Escor Gaztedi, La Única eta Marzola La Rioja. Txapelketaren bi-



Eibar eta Durango-Uribe-Zornotza taldeak. © ERT

garren jardunaldia hilaren 20an izango da, Mungian; eta azkena, hilaren 28an, Eibarren. Federazioaren ustez, «emakumezkoen zazpiko errugbia goraka doa Euskadin». ◀

info+: Euskadirugby.eus

Oztopo-jauzien zaldi-txapelketa Galean izango da

Datozen zapatu eta domekan, maiatzaren 20an eta 21ean, Getxoko Galea zaldi-klubean txapelketa bi izango dira. Alde batetik, oztopo-jauzien zaldi-txapelketa autonomikoa antolatuko dute, iaz legez. Beste aldetik, Euskadiko taldekako lehiaketa egingo dute. Ohi bezala, bertako elkarteak, Bizkaiko eta EAEko hipika-federazioak dira antolatzaileak. Parte hartu gura dutenek eguna, hilak 18, izango dute izena emateko eta klubean ordainketa egiteko azken eguna. Antolatzaileek iragarri dutenez, gehienez jota 150 zaldi onartuko dituzte. ◀

info+: 944 603 266 / info@hipicalagalea.com

Igotzeko playoff barik lotu dira leioaztarrek

Arenasek Leioa Kirol Elkartearen esperantzak zapuztu zituen pasa den domekan Gobelan. Gorri-beltzak aurreratu ziren markagailuan eta ez ziren gelditu bertan 3-0 ezarri arte. Bisitariak berdintzea lortu zuten, baina hamar jokalariaz geratu zirenean ezin izan zioten eutsi historikoari: Arenasek 91. minutuan zigortu eta 4-3 emaitza finkatu zuen. Hala, Leioako futbol-taldeak ezin izan zuen baliatu Rayo Mahadaondak Barakaldoko Lasarren berdindu izana. Bigarren Mailara igotzeko play-offetik puntu bakarrera geratu zen, baina Kopan jokatu du, lortu duen bosgarren postuari esker. ◀

hirukalagun

Hau da zure txokoa!

hiruka zaitez...
eta abantaila askoz goza egizu!

Urtean 35 euroren truke, Uribe Kostako euskarazko komunikazio-taldearen bultzatzailea eta partaidea izango zara.

Non da? lehiaketa



SARIA

Sopelako Oinutsik zentroari esker, kiropodia-saio bat zozkatuko dugu

Podologia-saio hori lortu gura baduzu, maiatzaren 24a (eguztzena) baino lehenago, bidali erantzuna, zure izen-deiturak eta harremanetarako bide bat hona: administrazioa@hiruka.eus edo 944 911 337.

Maiatzeko saria
«Akabuko martxea» eta «Dominica» DVDak



Hilabete honetako sari hori HIRUKAlagun eta bazkide guztien artean zozkatuko dugu. Zozketan parte hartzeko, bidali maiatzaren 31 (eguztzena) baino lehenago, zure izen-deiturak eta harremanetarako bide bat hona: administrazioa@hiruka.eus edo 944 911 337.

Zelan egin HIRUKAlagun?



Alboko QR kodea eskaneatuz (telefono mugikorraren bidez), edo bestela:

Webgunean: hiruka.eus/harpidetza/laguna/
Idatziz: hirukakoop@hiruka.eus
Deituz: 944 911 337 • 688 812 368

HIRUKA Koop.elk. Martikoena, 16, 2. solairua. 48992 GETXO

Abenduaren 13ko Datu Pertsonalen Babes Legearen 15/1999 Lege Organikoaren arabera, erabiltzaileek HIRUKAri emandako datuak fitxategi automatiko batean sartuko dira, erabiltzaileagaz harremanetan ipintzeko eta HIRUKAren informazioa eta publikizitatea helarazteko. Bestelako erabilerak erabiltzailearen aurretiko baimen zehatza behar dute. Erabiltzaileak gura duenean datuok zuzentzeko edo kentzeko bere eskubideak bete ditzake helbide honetara idatziz: hiruka@hiruka.eus

Zerbitzuak

Sudokua

Gogoan har egizu 1etik 9ra arteko zenbaki denek agertu behar dutela zutabe, ilara eta azpilauki bakoitzean.

7	3							
		5		3			6	
			8				4	
					9		2	
	9	1			8			
5	4		7					
					1	4		
			4	2	5		3	
	1				6			5

Soluzioa

5	6	7	9	8	7	2	1	3
8	3	1	2	5	7	9	6	
9	2	7	1	6	3	2	5	8
6	1	9	3	2	2	8	7	5
2	5	3	8	7	9	1	6	2
7	2	8	6	1	5	3	2	9
3	7	6	5	2	8	9	2	1
1	9	2	2	3	6	5	8	7
2	8	5	7	9	1	6	3	2

+ Guardiako farmaziak, hilaren 18tik 24ra

Barrika

ZULOAGA. Udaletxeko bidea, 2. 946 774 716. Eguenean, 09:00etatik aurrera, 24 orduz.

Berango

EGUIA. Sabino Arana kalea, 20. 946 680 360. Astegunetan, 09:00-22:00; zapatuan eta astelehenean, 09:00etatik aurrera, 24 orduz.

Erandio

ARRIOLA. Obieta, 40. ALTZAGA. 944 670 022. Zapatuan, 09:00-14:00.

ARRUTIA. Obieta kalea, 15. ALTZAGA. 944 674 711. Astegunetan, 09:00-22:00.

DÍAZ. Etxegorri kalea, 3. ASTRABUDUA. 944 170 291. Zapatuan eta domekan, 09:00-22:00.

GASTEARENA. Meso, 24-26. ASTRABUDUA. 944 175 200. Zapatuan, 09:00-14:00.

TEIJELO. J. A. Agirre plaza, 8 bis. ERANDIOGOIKOA. 944 530 124. Zapatuan, 09:00-14:00.

Getxo

ALZOLA. Arene kalea, 4. ALGORTA. 944 306 570. Astegunetan, 09:00-13:30, 16:30-19:30 eta 22:00etatik hurrengo eguneko 09:00ak arte; zapatuan, 10:00-13:30 eta 22:00-09:00; eta domekako 22:00etatik asteleheneko 09:00ak arte.

ARISTEGUI. Juan Bautista Zabala, 1. ALGORTA. 944 911 798. Astegunetan, 09:00-22:00.

BARRENECHEA. Alango, 7. ALGORTA. 944 600 043. Astelehenean, 09:00-22:00.

EZQUERRA. Ollarretxe, 27. ALGORTA. 944 303 328. Egunero, 09:00-22:00.

JIMÉNEZ. Illetas, 12. ALGORTA. 944 301 352. Egunero, 09:00-22:00.

LÓPEZ-LINARES. Kasune, 10. ALGORTA. 944 302 632. Astegunetan eta zapatuan, 09:00-22:00.

MORÓN. Bidezabal, 2. ALGORTA. 944 319 007. Astegunetan, 09:00-22:00.

SARRIA. Telletxe, 1. ALGORTA. 944 910 556. Astegunetan, 09:00-22:00.

ARRIOLA. Amaia, 29. AREETA. 944 805 328. Astegunetan, 09:00-22:00.

BAYANO. Ibaigane, 9. AREETA. 944 638 460. Astegunetan, 09:00-22:00; zapatuan, 10:00-22:00.

ELLACURIA. Andrés Larrazabal, 5. AREETA. 944 637 971. Astegunetan, 09:00-22:00.

ANDRACA. Maidagan, 61. GETXO.

944 914 697. Astegunetan, 09:00-22:00; zapatuan, 10:00-22:00.

GALARZA. Aingeruaren etorbidea, 2. GETXO. 944 914 704. Astegunetan, 09:00-22:00.

MONASTERIO. Gorbeia Mendia, 1. ITZUBALTZETA. 944 630 865. Astegunetan eta domekan, 09:00-22:00.

NÚÑEZ. Ibaiondo, 9. ITZUBALTZETA. 944 631 809. Astegunetan, 09:00-22:00.

Gorliz

ABURTO. Itsasbide kalea, 5. 946 775 452. Astegunetan, 09:00-22:00; zapatuan, 09:00-13:30.

ROMERO. Itsasbide, 20. 946 128 941. Zapatuan, 09:00-13:30.

Leioa

ANGULO. Kandelazubieta, 19. 944 645 185. Barikuan, 09:00-22:00.

TIEMBLO. Sabino Arana kalea, 89. 944 803 191. Domekan, 09:00-22:00.

ORTEGA. Artaza kalea, 8. NEGURIGANE. 944 608 501. Astegunetan, 09:00-22:00; zapatuan, 10:00-22:00.

ONA. Maiatzaren Bata kalea, 4. PINUETA. 944 630 066. Astegunetan, 09:00-22:00.

SAN ANDRÉS. Larramendi plaza, 2. PINUETA. 946 572 295. Egunero, 09:00-22:00.

Plentzia

ARAMBURU. Erribera, 20. 946 775 301. Astegunetan, 09:00-22:00; barikuan, 09:00etatik aurrera, 24 orduz.

Sopela

DOLARA. Sabino Arana, 28. 946 129 547. Astegunetan, 09:00-22:00.

ITURBE. Iparragirre, 3. 946 764 768. Astegunetan, 09:00-22:00.

ERAZO. Loiola San Andrés, 50. LARRABASTERRA. 946 762 363. Astegunetan, 09:00-22:00.

ZUMÁRRAGA. Gatzarriñe, 6. LARRABASTERRA. 944 047 600. Astegunetan, 09:00-22:00; domekan eta eguztenez, 09:00etatik aurrera, 24 orduz.

Urduliz

PARAMO. Aita Gotzon, 9. 946 764 507. Astegunetan, 09:00-22:00; martitzenez, 09:00etatik aurrera, 24 orduz.



Itsasadararren parean, apurka, aurrerantz

Itsasadarreko errepidean bidegorria egitea adostu zuten dagokien erakunde denek, pasa den mendean. Pasa den astean, mahai-gainean ipini zituzten bidegorri hori egiteko dauden lau proiektuak.

TESTUA: IÑIGO FERNANDEZ DE MARTIKORENA / ARGAZKIAK: HODEI TORRES

Pasa den mendean, 2000ko urriaren 27an, sinatu zen Eskumaldeko Bizikleta Ardatza lankidetzako protokoloa. Bertan, «bizikletaren erabilera sustatzeko eta itsasadarren ardatzean bizikletentzako ibilbidea sortzeko» konpromisoak hartu zituzten Bilboko, Erandioko, Leioako eta Getxoko Udalek, Bizkaiko Foru Aldundiak, Bilboko Portuko Agintaritzak, Bizkaiko Garraioen Partzuergoak eta Bilbao Ria 2000 erakundeak. Hilabete bat beranduago, hitzarmena berretsi zuten, sinatu zutenean «txirrindulari, oinezko eta motordun ibilgailuentzako erabilgarria izateko itsasadarren eskumaldeko bidea egokitzeko» lankidetzako akordioa.

Lau urte beranduago heldu ziren 2004ko Espainiako hauteskundeak. Kanpaina hartan, hautagai jeltzaleek Estatuari eskatu zioten Ibaizabalgo itsasadarren ondoko Bi-711 errepidean bidegorria egiteko, Bilbotik Aretaraino. Izan ere, Bilboko Portu Agintaritzaren lurra Madrilaren kompetentzia ziren oraindino. Bertoko alderdi abertzaleek zein konstituzionalistek eskaera horri eutsi zioten ordutik hona, baina azken urteotan garrantzia hartu du herritarren eskaerak, batez ere txirrindulari-elkarteen bidez.

Biziz Bizi Hiri Txirrindularien Elkartek hiru urte daroatza txirrindulari-martxak egiten, Ibaizabalgo eskumaldean bidegorria aldarrikatzeko; azkena pasa den martxoaren 12an egin zuten. Gogorarazi

dutenez, «sei kilometro besterik ez dira San Inazio-ko bidegorriaren amaieratik Bizkaiko Zubiraino. Oinez ere erraz egin liteke! Zergatik ez dugu itsasoraino heltzeko bide segururik? Autoz bidea izateak naturala ematen du... Oinezkoek eta txirrindulariok ez ote dugu eskubide hori?», galdetu dute. Euren ustez arrazoi asko daude Bilbo eta Getxoko bidegorriak lotzeko falta diren 6.151 metroak gorri margotzeko:

Leioako Udalaren asmoa da itsasadarreko errepidean txirrindulariei eta oinezkoiei lehentasuna ematea

«Ez da hondartzara joateko bakarrik (hori nahikoa izango litzateke ezta?), lanera, ikastera edo erreka-duk egitera ehunka aldiz joaten gara Getxotik Bilbora, edo Bilbotik Erandiora, Leioatik Bilbora...». Horregatik, dei egin diete Bilboko, Erandioko, Leioako eta Getxoko udalei, Bizkaiko Foru Aldundiari eta Bilboko Portu Agintaritzari, «proiektua ahalik eta lasterrin aurrera eroan dezaten».

Izan ere, elkarte gogaituta dago «errepideak norenak diren eztabaidatzeaz». Uste du ika-mika hori ezin dela «aitzakiatzat hartu» lanek aurrera egin ez

dezaten: «administrazioek bilatu behar dituzte bi-deak biztanleen eskabideak eta beharrak asetzeko, zailtasunen gainetik». Taldeak gogorarazi duenez, orain dela urte bi, 2015eko martxoaren 16an, Bizkaiko Batzar Nagusiek agindua eman zioten Bilboko Portuko Agintaritzari, Bilbo eta Getxo udalerrien arteko bidegorria nola bideratu aztertzeko proposamen bat egin zezan. Alderdi Popularraren ekimena izan zen inizatiba, eta jeltzaleen zuzenketa bat onartu ostean, aho batez alde agertu ziren beste talde denak.

Eskatutako txostena, mahai-gainean

Hala, etxerako lanak eginda, pasa den asteko egue-nean aurkeztu zituen Bilboko Portuko Agintaritzak itsasadarreko errepidean bidegorria egiteko balizko lau alternatibak. Aurkezpena Bizkaiko Batzar Nagusietako Ekonomiaren eta Lurraldearen Garapenerako Batzordean egin zuten Asier Atutxa Bilboko Portu Agintaritzaren presidenteak eta Carlos Alzaga Portuko zuzendariak.

Agintari biek, Iniciativas Ambientales enpresak ikertu dituen lau konponbideak azaldu zituzten batzarretako taldeen aurrean. Alternatibak, soluzio «merkeenaren» 173.000 eurotatik, «asmo handienerako» konponbidearen ia 24 milioi eurotara doaz.

Asier Atutxak azaldu zuenez, txirrindularientzako ibilbidea eraikitze proiektuak itsasadarreko errepideko 6.151 kilometroak hartuko lituzke. Iazko abendura arte, Portuaren ondarea ziren zirga-bide ohiaren zati denak, baina, azaldu zutenez, abenduaren 17an Bilboko Portuko Agintaritzaren administrazio-kontseiluak tarte bi zuzenean transferitzea onetsi zituen. Hala, 833 metro Bilboko Udalari eman zizkion eta beste 43 metro Getxoko udalerriri. Atutxak go-



gorarazi zuenez, oraindino «doan lagatzeko» falta dira Leioan dauden 1.724 metroak, urtearen bukaeran emango dituztenak. Leioako Udalak daborduko urtarilaren bukaeran iragarri zuen Bilboko Portuko Agintaritzari udalerritik pasatzen diren, «eta bere esku dauden», errepideen «doako lagapena» eskatu ziola. Errepide horiek bi dira: Autonomia kalea –Areeta eta Bilbo arteko errepide legeaz ezagutzen dena–, eta Felipe del Rio kalea –Lamiakoko dartse-naren eremua inguratzen duena–. Modu berean, Udalak azaldu zuenez, erakundearen asmoa da lagapen hori eskuratuko duenean inguru horretako «trafikoa berrantolatzea eta itsasadar ertzeko eremu horretan leioaztarrentzat bideratutako etengabeko berreskurapen bat hastea, beti ere txirrindulariei eta oinezkoei lehentasuna emanez».

Bitartean, motelago doa Erandio zeharkatzen dituzten 3.512 metroen jabetza-aldaketa. Horiek «epeka» ematea aurreikusi zuen Asier Atutxak, Portuko balantze ekonomikoan izango dituen ondorioengatik. Erandioko Udalak ere itsasadarreko errepideaz jabetzeko «presarik ez» daukala iragarri zuen pasa den otsaileko udal-bilkuran. Egoitz Bilbao Hirigintza zinegotziak oroitarazi zuenez, zatirik handiena da Erandiori dagokiona. Horregatik «prudentzia» eskatu zuen: «negoiazioetan itxarongo dugu besteek lortzen dutena jakiteko». Joseba Goikouria alkateak azaldu duenez, Bizkaiko Foru Aldundiak «ez du sartu gura» bidegorri horren operazioan eta berak ere prudentziaz jokatzera deitu zuen. Izan ere, tamaina ez ezik beste aldagai garrantzitsu bat dago Erandioko ibilbidean. Dozenaka enpresek daukate egoitza errepidearen ondoan, eta, hortaz, Bilbo eta Getxo bitartean eraikiko litzatekeen balizko bidegorri luzearen

baldintzak aurretik ezagutu gura dituzte Erandioko udal-arduradunek, norabide horretan pauso gehiago eman baino lehen.

Asier Atutxak, bere aldetik, batzarretako taldeei aurreratu zien Portuko Agintaritzak ezin duela bere gain hartu egin daitezkeen lau konponbideetako kostea, legeak ez duelako horretarako aukerarik ematen: «Ikuspegi juridikotik ezinezkoa da dirua zeregin horretara zuzentzea», esan zuen. Azaldu zuenez, bera buru den erakundea zenbait urtetan arduratu izan da errepideko mantentze-lanak egiteaz, «gizarte erantzukizunarengatik». Horrez gainera, Batzar Nagusiek agindutako azterlana egin du, eta horrek 25.000 euroko kostea izan du, akordura ekarri zuenez. Gainera, Atutxak nabarmendu zuenez, Por-

Erandioko ibilbidean, dozenaka enpresek egoitza daukate errepidearen ondoan; prudentziaz jokatzera deitu du Udalak

tuak, aipatutako lurzorua lau udalerriei doan uzteagatik izango duen ondare-galera 2.782.000 eurokoa izango da. Kopuru horretatik, heren bi baino gehiago, 1.923.000 euro, Erandion dauden lurzoruei dago-kie, eta beste 569.000 euro, Leioan daudenei.

Bidegorrirako lau aukera

Carlos Alzaga Bilboko Portuko zuzendariak zehaztu zuenez, azterlanak lau konponbide proposatu ditu. A alternatiba «xumeena» izango litzateke, eta 173.000 euroko aurrekontua izango luke. Aukera ho-

rretan aurreikusita dago 357 aparkaleku kentzea, batez ere Erandioko Alzaga auzoan. Ez litzateke gaur egun baino lur gehiago okupatuko, eta plataforman automobilak eta bizikletak egongo lirateke, seinalez-tapena indartuta.

Bigarren alternatibak, B deritzotenak, 4,9 milioi euroko kostea izango luke: ia 350 aparkaleku desagerraraziko litzuzke. Gainera, 3.700 metro koadro gehiago okupatzea eragingo luke. Proiektu horren arabera, txirrindulariak eta motordun ibilgailuak bereizita joango lirateke petril batengatik. Txirrindularrak metro biko zabalerako bidegorria izango lukete.

Aukerarik garestiena, ostera, C alternatiba da: «ia 24 milioi euro». Itsasadarreko hainbat zatitan «sei metroko luzerako hegala» eraikiko litzateke; bidegorriak hiru metro hartuko litzuzke, eta oinezkoentzako bideak beste bi izango litzuzke. Hala eginez gero, txirrindularien bidea, oinezkoena eta ibilgailuen trafikoa guztiz independenteak izango lirateke. Horretarako beharrezkoa izango litzateke bost mila metro koadro baino gehiago okupatzea.

Azkenik, Carlos Alzagak azaldu zuenez, bada-go laugarren alternatiba bat, aurrekoaren antzekoa, baina aurrekontu txikiagoa duena: 16,3 milioi euro. Kasu horretan, hegala zati laburragoetan eraikiko lirateke. Modu berean, 300 aparkaleku baino gehiago kendu eta 2.275 metro koadro okupatuko litzuzkete. Azken aukera bi horiek martxan ipintzeko, beharrezkoa izango litzateke azterlan hidrauliko bat egitea eta Kostako Zuzendaritzak eta URA agentziak on ikusia ematea. Izan ere, lur azpian sartutako mikropiloteek itsasadarrak gora egingo duenean izango duten eragina neurtu beharko lukete erakundeek, bidegorria horrela egin gura badute. ◀



Mundukatuak

Iris Gutiérrez Fernández algortarra

«Zeramikaren hiriburua da La Bisbal d'Empordà»

Iris Gutiérrez 2009an heldu zen La Bisbal d'Empordà herrira (Girona, Herrialde Katalanak). Aitortzen duenez, bere amak eroan zuen hara, «behartuta», institutuz aldatu eta «gehiago ikas nezan». Algortarrak zenbait urte zeroatzen daborduko inguruetan bizitzen, amaren lana dela eta, aspaldi utzi baitzituen Algortako etxea eta Itxartu dantza-taldearen entseguak. Orain dela urte batzuk, familia La Bisbaletik Cruillesera lekuz aldatu zen, baina hilabete honetan bertan independizatu da gaztea, eta La Bisbal d'Empordàra bueltatu da.

Hizkuntzara ez ezik, bertako gastronomiara ere moldatu da algortarra. Hortaz, gomendatu du inguruko *pa amb tomàquet*, butifarrak eta «oso gozo dagoen» fueta probatzea. «Trinxata ere bada hemengo plater tipikotako bat; aza- eta patata-nahaskia da, *cansaladagaz* (hirugiharra). Platerak eroan ditzake *mongetesak*, zartagi-

nean egindako indabak modukoak, berakatz eta perrexilagaz. Bazkariak laguntzeko ohikoa da bertoko garga-doa edatea, baina pattarrei dago-kienez, *ratafia* da gehien edaten den bertoko produktua. Azkenburu tradi-

“Munellsen turista lar daude, Ocho apellidos catalanes filma grabatu zutenetik”

zionalena *rusa* da, trufa daroan hostore-pastel bat». Gaztearen ustez, bizi den herria ez da garestia eta «gehiengoa jende nagusia» denez, ez da izaten giro handirik, azoka- eta jai-eguetan izan ezik. Diskoteka bat zabaldu berri dutenez, «gutxienez badaukagu gauetan joateko leku bat», dio. Hala ere, azaldu duenez, badaude ondo

pasatzeko zenbait aukera. Herrian, ibaiertzeko pasealekuak eta gazteluak daude, eta inguruan badira ikusteko zenbait baseliza eta eraikin-hondakin ere. «Herriren bat bisitatuz gero, kilometro bira Munells dago; Erdi Aroko harresiak ditu oraindino, eta oso polita da», baina, ohartarazi duenez, *Ocho apellidos catalanes* filma bertan grabatu zutenetik «turista lar» daude bertan, «autobus gidatuak eta guzti» eskaintzen baitituzte haraino. Inguruko harrizko herriak eta masiak ere politak direla dio Gutiérrezrek; aukera izanez gero, Pals bisitatzea gomendatu du. Eskualde horretan, Ullastret-eko hiri iberiarraren eraikin-hondakinak ere ezagunak dira nazioartean. Dena den, bisitari eta turista asko hurrertzen dira La Bisbalera, «zeramikaren hiriburua baita» argitu du algortarrak. Bertan ekoizten duten zeramikak ospea du; gehiena esportatzen dute. ◀

NOR DA

Nongoa

Algortakoa.

Adina

24 urte.

Zertan dabil

Etiket hurbil dagoen merkataritza-zentro batean dabil beharrean.


Ikasketak

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza.

Noiz arte Gironan?

Epe-mugarik ez dio ipini bere buruari, ez du erabaki etorkizunean han segituko duen ala alde egingo duen. Lanak eta familiak baldintza dezakete gaur egungo egoera.

NON DAGO



Lurraldea

Herrialde Katalanak.

Azalera

70.520 km².

Herria

La Bisbal d'Empordà.

Biztanleria

10.742 biztanle.

Hizkuntzak

Katalana da bertoko hizkuntza (Herrialde Katalanetan, 11 milioi hitun dira) eta koofiziala da gaztelaniagaz eta aranesagaz (Vall d'Aran eskualdean) batera. Independentzia aldarrikatuz gero hiru hizkuntzek koofizial izaten jarraituko lukete, subiranisten arabera. Biztanleen % 36ak katalana du ohiko hizkuntza, % 46ak gaztelania, % 12ak biak, % 0,03ak aranesa eta % 6ak beste hizkuntza batzuk.

Dirua

Euroa.

Erakunde laguntzaileak:



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua